

Jardueren Memoria 2021

URTEKO TXOSTENA | DATU SOZIOEKONOMIKOAK



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

www.bidasoa-activa.com



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



Bidasoa aktiba
Bidasoa bizirik

Batzar Nagusia

José Antonio Santano Clavero. Irungo Alkatea.

Txomin Sagarzazu Anzisar. Hondarribiko Alkatea.

Administrazio-kontseilua

Miguel Angel Páez Escamendi. Lehendakaria.

María Serrano Olascoaga. Lehendakariordea.

Juncal Eizaguirre Rosa. Batzordekidea.

Xabier Iridoy Olaizola. Batzordekidea.

Santiago Jiménez Ussía. Batzordekidea.

Jokin Melida Beltran de Heredia. Batzordekidea.

Iñigo Manrique Cía. Batzordekidea.

Juan María Altuna Muñoa. Batzordekidea.

Estitxu Urtizberea Sorzabal. Batzordekidea.

–

Eva Fernández Tolosa. Idazkaria.



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

Zuzendaritza taldea

Eva Fernández Tolosa.

Zuzendari Gerentea.

María Climent Pons.

Ekonomia, Finantza eta Giza Baliabideen Arloa.

Virginia Gil Rodríguez.

Zeharkako Programak.

Vicky Alquezar Schepens.

Behatokia, Europako Lankidetzeta eta Partzuergoa.

Silvia Istillarte Pardo.

Lehiakortasuna eta Berrikuntza.

Izaskun Iridoy Olaizola.

Ekintzaitzeta eta Jarduera Berria.

Cristina Gutiérrez Alonso.

Turismoa.

Jose María Belloso Loyarte.

Formakuntza eta Enplegua.



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

Aurkibidea

Sarrera

- 01 Lehiakortasuna eta Berrikuntza**
- 02 Formakuntza eta Enplegua**
- 03 Ekintzailtza eta Jarduera Berria**
- 04 Turismoa**
- 05 Behatokia, Europako Lankidetzeta eta Partzuergoa**

2021 Bidasoa bizirik kopurutan

2021 Urtekari Sozioekonomikoa

Esker onak

Sarrera

2021ean ere, Bidasoa bizirik-en jardunaren ardatz nagusiak lankidetzeta eta berrikuntza izan dira, ekitaldiko politikak eta jarduerak diseinatu eta ezartzeari dagokionez. Jarduera horiek Irungo Udalak eta Hondarribiko Udalak eginiko enkargu eta kudeaketa-planek ondorioa izan dira.

2021eko ekitaldi hau berezia izan da oraindik ere, pandemiak maila sozialean eta maila ekonomikoan izan duen inpaktuagatik. Hori dela eta, funtsezkoa izan da Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana abian jartzea. Gobernuaren estrategia horren bidez, Europatik COVID-19aren krisiaren kalteei erantzuteko funtsak bideratzen ari dira, erreforma eta inbertsioen bidez. Ildo horretan, nabarmentzekoa da sozietateak funtsezko rola izan duela proiektuen koordinatzaile eta sustatzaile lanetan. Eskualdeko udalek eta sozietate publikoek (tartean, Bidasoa bizirik bera) aurkeztu dituzte proiektu horiek, ateratzen joan diren ekimen eta deialdietan. Proiektuen aurkezpenean, aurrea hartuz eta modu proaktiboan jokatu du, finantzaketa lortzeko benetako aukerak zituzten proiektu estrategikoak identifikatuta eta lehenetsita, kontuan izanik deialdietan eskatutako baldintza zorrotzak bete behar direla (betekizun administratiboak, epeak...).

Horrela, Irungo Udalak 6 proposamen aurkeztu ditu, hainbat gairi buruzkoak: mugikortasun jasangarria eta hiriaren berronertzea, merkataritzaren modernizazioa, administrazio publikoaren zerbitzuen digitalizazioa eta hobekuntza eta turismo-baliabideen kudeaketa jasangarria. Hiru proiektutan zehaztu dira: «Oiaso erromatar hiria» turismo-helmuga adimenduna (DTI); Irun jasangarri, irisgarri eta digitala (Hiri-garraioaren elektrifikazioa eta digitalizazioa eta oinezkoa mugikortasunaren ardatz gisa) eta Irungo merkataritzaren modernizazioa. Lehen biek finantzaketa erdietsi dute lehen deialdi hauetan.

Ziurtasunik gabeko egoera honetan, enpresen laguntzan eta enpleguan eskudun diren erakundeek ekimen eta deialdietan proaktibo izaten jarraitu dugu eta, bitartekari gisa, politika horien gure lurraldera erakartzen eta egokitzen saiatu gara. Horrez gainera, funtsezko rola izan dugu gure enpresen, ekintzaileen eta enplegu bila dabiltzanen behar zehatzak

erakunde horiei helarazten, haien programak hautemandako egoera errealearen arabera egokitu ditzaten eta egoera hori kontuan har dezaten beren programa eta ekintzetan.

2021ean, Berdintasun Planaren esparruan, onetsitako ekintza-plana betetzeko lan egiten jarraitu dugu. Kudeaketa eta gardentasuna hobetzen jarraitu dugu, prozedura guztiak Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriaren prozeduren arabera egokituta.

2021eko ekitaldian, sozietatearen proiektu izarrak berreskuratzen saiatzeko ildoan, Krea Bidasoa azoka antolatu da berriz ere, formatu misto batean. Erronka handia izan da eta, gure ustez, erabaki zuzen bat ere. Murrizketak direla eta, enpresa-ehunaren lagin txiki batek eta 70 ekintzaile/enpresak hartu zuten parte. Streaming bidez eman zen azoka, eta 628 bisualizazio lortu ziren. Enpleguaren bi asteak ere programatu dira, ezarritako neurri sanitarioen arabera egokituta baina aurrez aurreko formatuan. 28 enpresak hartu zuten parte aurreneko edizioan, eta 27k bigarrean. 484 lanpostu eskaini dituzten 192 lan-eskaintzaren bidez. Horrez gainera, ekimen txiki eta sinpleak egiten jarraitu dugu, online formatuan.

Enpleguaren alorrean, lanarekin lotutako erakunde eta entitateekiko kolaborazioa indartu dugu, bai eta enpresa-ehunarekin dugun harremana ere, funtsezkoa baita Bidasoaldeko herritarren enplegarritasuna hobetzen jarraitzeko. Ildo horretan, aipagarria da iaz abiarazitako laneratzeko baliabideen sarea, kolektibo zaugarriak laneratzeko proiektu bat abiarazi baitu eskualdeko hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean, GFaren Elkar-Ekin proiektuaren bidez.

Berrikuntza eta enpresen lankidetzeta sustatzea da sozietatearen jardueraren beste zutarrietako bat, eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuz. Via Irun hiri-barruti berritzailearen proiektuan aurreikusitako jarduerak egin dira (GFAk onetsitako proiektu estrategiko bat da). Era berean, ekonomia zirkularreko ekimenak sustatzeko proiektu bat abiarazi da. Irunen eta Hondarribian 4.0 Industriak egun duen egoerari buruzko azterlanaren jarraibideen eta

ekintza-planaren arabera, aurreko urteetan eginiko 25 diagnostikoei Spri eta Innobasqueren Hazinnova ekimenaren esparruan beste 20 enpresatan egin ditugun berrikuntza ez teknologikoko 20 proiektuak gehitu behar zaizkie.

Bidasoko Hiri Behategia oinarritzko tresna da oraindik ere gure analisi sozioekonomikoa egiteko, eta informazio-iturri baliagarria da Irun eta Hondarribirako, are gehiago aurtan, lagungarri izan baitzaigu ehunaren egoera ezagutzeko.

Ekitaldi honetan agentziaren funtsezko ardatz bat sustatzen jarraitu dugu, ekintzailletza, hain zuzen ere. Enpresa berrien beharretatik oso gertu egon gara, enpresa berriak zentzurik zabalenean hartuta. Azken batean, beren beharrak zeintzuk diren entzun dugu eta, gure baliabideen arabera, erantzuna eman diegu, dela neurri zehatzak ezarrita, dela erakunde edo instituzio eskudunei horien berri emanda. Neurri zehatzen artean, errentaren prezioa modulatzeko jarraitu dugu Bidasoa bizirik-ek kudeatutako enpresa-zentroetan. Gainera, laguntza eman diegu aurtan ere 2021ean negozio berri bat ezartzeko azterlana hasi duten pertsonen. Aipatzekoa da ekintzaileentzako beka-programa sendotzen ari dela, 2021eko edizioak (egiten den bigarrena) arrakasta handia izan baitu, egoera gorabehera.

Turismoaren alorrean, esan daiteke ekitaldi honetan sektorea suspertzen hasi dela, mugikortasunaren mugak eta pertsonen arteko distantzia eta barrerei lotutakoak apurka-


apurka malgutuz joan ahala. Sektorearekin harremanetan egon gara, haien beharrak jasotzeko. Interneten dugun posizionamendua indartzen jarraitu dugu, Visit Hondarribia Irun plataformaren bidez. Bertan, sare sozialetarako estekak daude, bi udalerrietako turismo-baliabideak era berritzailean sustatzen jarraitzeko.

2021eko gure jardueraren ildo nagusia izan da enpleguaren sorkuntzako edo enpresa-ekimen berrien sorrerako sektore berrietan jarduerak sustatzen eta egiten jarraitzea, eta aurtan aipagarria da ekonomia zirkularreko plana garatzen hasi garela.

Sozietateak, gainera, laguntza teknikoa eman die Irungo Udalarari eta Hondarribikoari POCTEFA 2014-2020k kofinantzatutako proiektuen alorrean: mugikortasun jasangarriarekin lotutako EDERBIDEA eta SMARTMOB proiektuak eta ondare historikoa, kulturala eta sormenezko ekonomia sustatzeko RUTAS SINGULARES proiektua.

Aurtan ere, Bidasoa bizirik-ek eskualdeko udalen garapen-planak sustatzen, garatzen eta gauzatzen parte hartu du: Irun Ekintzan, Irungo Udalaren garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko ituna; eta Hondarribia Abian, Hondarribiko Udalaren garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko akordioa. Gainera, Bidasoa bizirik-ek, berriro ere, Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko partzuergoaren jarduerak koordinatu, sustatu eta gauzatu ditu.

Eva Fernández Tolosa.
Zuzendari Gerentea.



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



01

Lehiakortasuna eta berrikuntza

Aurten, enpresei eskaintzen diegun lehiakortasun hobekuntzarako laguntza zerbitzuaren barruan, COVID19agatik sortutako krisiaren osteko enpresaren egoera eta horien epe motzeko ikuspuntua aztertzeke hausnarketa estrategiko lanetan zentratu gara gehienbat.

Vialrun trenbide-eremua berriztatzearen proiektuari lotutako Hiri-barruti berritzailea proiektuaren esparruan, Berrikuntzari Laguntzeko Programa jarri dugu abian irtenbide teknologikoen garapena bultzatzeko eta KOLAB espazioa aktibatzeke mugikortasun garbiaren, 4.0 erretailaren eta garraio eta logistika aurreratuen sektoreetan antzemandako joerekin bat datozen ekimen eta proiektu berriak identifikatzeko helburuarekin.

Era berean, industria-enpresetan 4.0 industriaren teknologiak txerta daitezen sustatzen jarraitu dugu, Gipuzkoako Foru

Aldundiaren 4.0 Industria eredua oinarri hartuta lurralde-garapenerako programaren bidez, eta enpresekin batera berrikuntza-prozesuetan, Hazinnova programaren bidez (berrikuntzarako atea). Programa hori SPRIK eta Innobasquek bultzatu dute, eta eskualdeko Hazinnova agente gisa parte hartzen dugu.

Ekonomia Zirkularraren lan-ildoari dagokionez, Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean aritu gara EKObi industria-sinbiosiaren proiektuan.

Era berean, aurreko urteetan bezala, laguntza teknikoa eman dugu txikizkako merkataritzaren eta tokiko produktuen sektorearen lehiakortasuna hobetzeko ekintzen abiaraztean, Hondarribia Abian eta Irungo merkataritza biziberritzeko planaren esparruan.



01/1. Enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programa.

Programaren bidez, enpresei aukera berriak detektatzen laguntzen diegu, inguruan sortzen diren aldaketei aurre egitea ahalbidetuko dieten proiektu berriak. Enpresa bisitatzen dugu eta zuzendaritza-taldearekin batera hausnarketa estrategiko bat egiten dugu, lehenetsi beharreko jarduera-ildoei buruz. Ekintza-plan bat prestatzen dugu, lehentasuneko lan-ildoei eta/edo lehentasuneko proiektuei, eta horien finantzaketa-bide posibleak, aldizka enpresarekin berrikusiko direnak.

Aurten 19 enpresak parte hartu dute programan. 19 enpresekin hausnarketa estrategikoa egin dugu, 15ekin ekintza-plana kontrastatu dugu eta enpresetako batekin lehen jarraipena egin dugu.

01/2. Distrito urbano innovador, inclusivo e inteligente de e-mobility, transporte y logística avanzada y retail 4.0. Vialrun.

Sektorea espezializatzeko eta jarduera ekonomiko berria sortzeko proiektua, 1. fasea.

- Berrikuntzari laguntzeko programa, irtenbide teknologikoen garapena sustatzeko.

Irungo eta Hondarribiko enpresa txiki eta ertainei zuzendutako programa, jarduera nagusia VIAIRUN (Mugikortasun garbia, Garraio eta logistika aurreratua, 4.0 Erretaila eta/edo Zerbitzu Aurreratuak) proiektuaren esparruan identifikatutako espezializazio-sektore eta -esparruetan dutenak, edo edozein jarduera-sektoretako enpresei zuzendua, baina espezializazio-eremu horiekin lotutako irtenbide berritzaileak ezartzeko laguntza eskatzen dutenak.

Beharrezkoa da enpresak identifikatutako proiektu berritzaile bat izatea eta orain arte martxan jartzen hasi ez izana. Programak gure eskualdeko enpresei enpresa onuradunak berak aukeratuko duen zentro espezializatu baten zerbitzuak finantzatzeko aukera ematen die, zein zentro teknologiko edo prestakuntza-zentro batetik hasita ingeniari-taldea espezializatu baterainoko zentro bat izan daitekeen.

10 proiektu aurkeztu ziren eta 5 izan ziren aukeratuak.

- IHub Aduanaren dimentsionamendu-plana. Aduana eraikina etorkizunearan birgaitzeko prestaketa-azterlanak. Antzeko ezaugarriak dituzten ekimenei buruzko benchmarking europarra egin du, baita zerbitzuen programarako eta espazioen banaketarako proposamena ere.

KOLAB Vialrun.

- E-mobility, garraio eta logistika aurreratua eta 4.0 erretail sektoretako joeren azterketa berrikustea, PESTEL metodologiaren arabera, tailerretan enpresa-ehunarekin batera lan egiteko.

- KOLAB abian jartzea, baterako sorkuntzarako eta lankidetzarako gune baten esperientzia pilotu gisa. Espazio horretan, enpresa-sarearen eta ezagutza-zentroen gaitasunak eta ezagutza bilduko dira, bai eta ekintzaileen ekimena eta bultzada ere, aurreko puntuan hautemandako joerekin bat datozen ekimen eta proiektu berriak sortzeko.

Baterako sorkuntzako 4 tailer egin ziren.

- Arrailak kontrastatzeko eta identifikatzeko tailerra: urriaren 20a
- Ikuspegi eta erronken tailerra: azaroaren 4a
- Proiektuen ideiak identifikatzeko tailerra: azaroaren 11a
- Proiektuen kontzeptualizatorako tailerra: azaroaren 18a

35 enpresek parte hartu dute eta emaitza 8 proiektuen identifikazioa izan da.

KOLAB programa

Vialrun-en barruan dagoen KOLAB programak elkarlanean aritzeko gunea izan nahi du. Bertan, enpresa-sarean eta enpresa berrien ekimena bultzatu eta proiektu berriak sortuko dira, mugikortasun garbiaren, retail 4.0 eta garraio eta logistika aurreratuaren sektoreetan hauteman diren joeren inguruan.

Horretarako, tailer edo talde-saio batzuk antolatu dira, hurrengo helburuekin: (I) eskualdeko enpresa-sarean egungo gaitasunen eta aztertutako joeretara egokitzeko behar diren gaitasunen arteko alde nagusiak antzeman eta (II) identifikatu diren beharretatik proiektu ideiak elkarlanean sortu.

1

Kontraste eta identifikazio tailerra

Urriak 20 asteazkena
9:00etatik 11:30etara

Palmera Montero Zentroa
Irun

2

Ikuspegi tailerra eta erronkak

Azaroak 4 osteguna
9:00etatik 11:30etara

Irun Factory

3

Proiektuen identifikazio tailerra

Azaroak 11 osteguna
9:00etatik 11:30etara

Irun Factory

4

Proiektuak kontzeptualizatzeko tailerra

Azaroak 18 osteguna
9:00etatik 11:30etara

Irun Factory

IZEN-EMATEA

01/3. 4.0. Industria.

- 4.0 Industria modelotik- Gipuzkoako Foru Aldundia-Lurralde-garapenerako programa, Eskualde Garapeneko Agentziak: 14 enpresa.

Programa horren helburua enpresei laguntzea da, 4.0 industriaren teknologiak beren antolakuntzako prozesuetan sar ditzaten.

Programaren edizio honetan, datuen analisisan oinarritu dira garatutako proiektuak.

01/4. Berrikuntza.

- Hazinnova programa, "berrikuntza ez-teknologikora sartzeko atea", SPRI eta Innobasquerekin lankidetzan: 18 proiektu identifikatzea 16 enpresatan eta, azkenik, 10 enpresak jarri zuten abian beren berrikuntza-proiektua.
- Hazinnova programaren aurreko edizioan parte hartu zuten enpresei ziurtagiriak emateko jardunaldia antolatzea. Urriaren 28a.



01/5. Ekonomia zirkularra.

EKOBI.- Industria-sinbiosia: Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan aritu gara EKOBI proiektuan. Proiektu horren helburua, industria-parkeak eko-parke industrialetara aldatzea da.

Bidasoa bizirik lagundu du prozesuan, MUK enpresen eta eragileen parte-hartze handia izan zezan, informazioa lortzea funtsezkoa baitzen gero aztertu eta ondorioak ateratzeko.

Proiektuan 25 enpresak parte hartu dute, jarduera garatzeko behar ziren baliabideak eta materialak, jardueraren ondorioz sortzen ziren hondakinak eta materialak, materialen sarrerak eta irteerak eta, azken batean, sinbiosi industrialean eta/edo ekonomia zirkularrean lan egiteko ezagutza eta/edo aurreikuspena zegoen jakiteko galdetegari erantzunez.

01/6. Txikizkako merkataritzaren eta tokiko produktuaren sektorearen lehiakortasuna hobetzea.

Hondarribia Abian esparruaren barruan kokatutako ekintzak

- Txikizkako merkataritza.
- Merkataritzaren ekintza planaren koordinazioa eta jarraipena.
- Merkataritza dinamizatzeko ekintzak:
 - Inauterietako erakusleihen lehiaketak
 - Braderie, kaleko merkatua 19, 20 eta 21ean, 25 saltokiren partaidetzarekin.
 - Summermarket, udako merkatua abuztuaren 7an eta 8an Butroe pasealekuan, 15 saltokiren partaidetzarekin.
 - Hondarribia Zu Zara Challenge-a. Komunikazio-kanpaina bat, herritarrei tokiko saltokiekin elkarreragiteko gonbita egiten diena, mikrobideoen bidez.
 - Gabonetako kanpaina: Hondarribiko Gabonaldia. Kanpainari atxikitako 31 saltokietako baten eguneroko opari eta mezu ezberdineko egutegi baten inguruan aritu da kanpaina.
 - Gabonetako azoka: abenduaren 11n eta 12an Jostaldi frontoian, 15 saltokiren partaidetzarekin eta hainbat jardueren antolaketarekin.



- Prestakuntza-ekintzak:
 - “Zure merkataritza kontsumo-joera berrietara egokitu” programa: 4 parte-hartzaile.
 - “Visual Merchandising” Programa: 9 parte-hartzaile.
 - TicketBAI informazio-saioak: 4 saio guztizko 58 parte-hartzaileekin.
- Merkataritza-ekipamendua hobetzeko laguntza-lerroa hedatzeko laguntza teknikoak: 12 espediente aurkeztu dira.
- Saltokien Bono Denda ekimenaren hedapen eta sensibilizaziorako laguntza teknikoak: atxikitako 44 saltoki.
- Informazio zerbitzua: 52 erantzundako kontsulta.
- Tokiko produktuaren sektorea.
- Bertako Produktuaren V. Astea. Edizio honetan jarduera guztiak on line kanalen bidez egin dira. Apirilaren 19tik 25era nutrizio tailerrak egin ziren, bertako produktuekin egindako errezeten

bideoak eskaini ziren Hondarribiko sukaldariak prestatuak eta 7 saski zozketatu ziren Azokako Zesta sustatzeko.

- “Gipuzkoa Azoken Sarea” Proiektua: Landaola Elkarteak, Elika Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako proiektu pilotuan parte hartzea, Gipuzkoako udalerrietako merkatuen etorkizuna aztertu, indartu eta bermatzeko.

01/7. Irungo Merkataritza biziberritzeko planari laguntza teknikoa ematea.

- MARKET PLACE IRUN proiektuan laguntza teknikoa: kontratazio espedientearen prestakuntza.

01/8. KREA Bidasoa.

Ekintzailatza, Sormen eta Berrikuntza Azoka. Apirilaren 29an izan zen, Irun Faktoryn, eta formatu mistoan egin zen. Enpresa-sarearen lagin txiki batek hartu zuen parte, murrizketen ondorioz: 70 bat pertsona ekintzaile/enpresa, eta streaming bidez 628 bistaratze.

01/9. Mikroenpresei eta enpresa txikiei berrikuntzan eta lehiakortasunean laguntzeko zerbitzua.

- 181 enpresa lehiakortasuna hobetzeko programetan.
- Informazio- eta kontsulta-zerbitzuan artatutako 100 enpresa.



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



02

Formakuntza eta Enplegua

Prestakuntza eta Enplegu Sailaren jarduerak hiru ardatz estrategikotan eragin dute: tokiko sareak indartzea enplegu-, prestakuntza- eta orientazio-ekintzetan laguntzen duten erakunde eta antolakundeekin; pertsonak erabaki pertsonalak eta profesionalak hartzeko prozesuetan kokapen hobea izatea erraztuko duten ekintza berritzaileak sustatzea; eta pertsonak gizarteratze- eta laneratze-prozesuetan aholkatzea, orientatzea, laguntzea eta laguntzea.

Bidasoa bizirik enplegu-sistema publikoaren parte da, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzaile gisa, eta, horregatik, garatzen ditugun jarduera guztietan, pertsona guztiei enplegua lortzea errazteko lan egiten dugu, eta, horrela, lan-merkatu bidezkoagoa lortzen laguntzen dugu.

Nabarmentzekoa da 2021ean bi proiektu berritzaile jarri direla abian, beren metodologiagatik eta/edo horien lankidetzazko diseinuagatik:

- Arlo soziosanitarioan online prestakuntzako programa pilotu bat, Irungo Udalerako laguntza tekniko eta haren koordinazioa eta jarraipena garatzen dituen, langabeak 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriaren - Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208) - bidez kualifikatzeko. Programa horretan 15 pertsonak parte

hartu dute, % 63,3 emakumezkoak eta % 26,7 gizonezkoak. Parte-hartzaileen adina 40 urte ingurukoa da, eta ziurtagiria amaitzen dutenen ehunekoa % 60koa da (emakumeen % 54,5 eta gizonen % 75).

- Eta Enplegu eta Prestakuntza gaietan erreferenteak diren erakundeen eskualdeko saretik diseinatutako lankidetzako proiektua. BIDALAN 2021 izeneko proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du, "Enplegua eta gizarteratze eta laneratzea sustatzeko, Elkar-EKIN Lanean" programaren diru-laguntzen deialdiaren bidez. Horri esker, eskualdean garatzen ari garen maila anitzeko gobernantza-eredua indartu dugu, irekia eta lankidetzakoa, eta kolektibo ahulenean lan-eremuan posizio hobea izatea ahalbidetu du. Lan-aktibazioko, prestakuntzako eta bitartekotzako proiektu integral honetan, honako hauek diseinatu eta kudeatu ditugu:
 - 160 ibilbide pertsonalizatu.
 - 6 prestakuntza-programa kualifikatzaile.
 - Lanekoak ez diren 40 prestakuntza-praktika.
 - 2 enplegu azoka.
 - 20 lan eskaintza zehatz.

02/1. Etorkizuna duten lanbideen El Espazio guneko jarduerak.

2021. urtean, Etorkizuna duten lanbideen El Espazio gunean 3.577 laguntza-zerbitzu garatu dira enplegu- eta prestakuntza-ibilbideetan dauden pertsonen laguntzeko.

Esku-hartze pertsonalizatuak eta talde-jarduerak egin ditugu, pertsonen arreta emateko interesgarriak diren eremuak edo poloak erreferentziatzen hartuta: "Bila ezazu zure formakuntza", "Aurki ezazu zure enplegua" eta "Bidera ezazu zure etorkizuna". Aholkularitza pertsonalizatuari dagokionez, 444 pertsonen orientazio, informazio eta laguntza zerbitzuak eman dizkiegu.

Taldeko jardueren dagokionez, 41 tailer eman ditugu eta 206 pertsonak hartu dute parte. Oraingo honetan gehien eskatu diren edukiak enplegua bilatzeko tailerrak izan dira, eta, ondoren, Partenariotza tailerrak, El Espazioren ildo bereizgarrietako bat. Horren bidez, komunitateko erakunde eta gizarte-eragileekin eta prestakuntza-zentroekin lan egin eta lankidetzan aritzen gara.

Asko erabiltzen den baliabidea Autoerabilera da, 9 ordenagailu (kontingentzia-planarekin bostera murriztuta), Internetarako konexioa, eskanerra, inprimagailua eta enplegua eskuratzeko eta hobetzeko hainbat laguntza-baliabide dituen gunea, 658 zerbitzu eta 855 erabilera-ordu dituenak.

Oro har, El Espazioko jardueretan parte hartu duten pertsona guztietatik, % 43 gizonenak dira eta % 57 emakumeenak. Adinari dagokionez, % 42 45 urtetik gorakoak dira, % 38 30 eta 45 urte hartekoak eta % 20 30 urte baino gutxiagokoak.

02/2. Orientazio eta enplegu-zentroa.

Bi zerbitzuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez finantzatu dira, eta deialdi publikoen bidez esleitzen dira. Ildo horretan, 2021a ere gorabeheren urtea izan da bi programeri dagokionez. Lehen hiru hilabeteak aurreko urteko ildori jarraitu dio, murrizketen ondorioz, eta urtearen gainerakoan egonkortasun handieneko zerbitzuak mantendu dira, amaitu den deialdi baten, 2019-2021, eta hasi den beste baten, 2021-2023, arteko trantsizio-aldia izan ezik. Eta alde aurreko hitzorduen bidez bakarrik jarraitu dugu pertsonen arreta ematen. Hala eta guztiz ere, Enplegurako Orientazio Zerbitzuan, 459 pertsonen banakako prozesuak garatu dira, 2020an baino %16a gutxiago eta lana lortzen dituztenen ehunekoak 2019-2021 deialdia amaitzean %49koa izan da.

Enplegu Zentroko Zerbitzuaren exekuzioak Orientazio Zerbitzuaren dinamika berari eutsi dio, lehen hiru hilabeteetan

erabiltzaile gutxiagorekin eta bigarren hiru hilabete aktiboago batekin. Kasu honetan deialdi bat amaitu eta berri bat hasi da, eta trantsizio-aldia luzeagoa izan da. Honek, sarbide kopurua eta erabiltzaile kopurua murriztu ditu: aurreko urtean baino 250 sarbide gutxiago (%38a) eta 29 pertsona gutxiago (%24a). Deialdiaren arabera nahitaezkoak diren taldeko jardueren dagokionez, taldeko 13 tailer egin dira eta horietan 63 pertsonen hartu dute parte.

02/3. Formakuntza.

Oro har, 2021ean 33 prestakuntza-ekintza jarri dira abian, eta 308 pertsonak parte hartu dute, % 55,5 emakumeenak eta % 44,5 gizonenak.



Enplegurako Prestakuntzan, 22 ikastaro jarri dira abian. Hauek, 1726 prestakuntza ordu presentzial eta 492 ez presentzial suposatzen dute eta 219 pertsona kualifikatu dituzte, horietatik %53a gizonenak dira, eta %47a emakumeenak. Garatutako prestakuntza-espezialitateak: Mendeko Pertsonentzako Arreta

Soziosanitarioa gizarte-erakundeetan, Oinarrizko Ostatu-zerbitzuak, Sukaldea, Jatetxeetako eta Tabernetako oinarrizko eragileak, Frantsesa, Orga Jasotzaileak, Laneko Arriskuen Prebentzioa Eraikuntzan espezialitateetako 4 ikastarorekin, konpetentzia digitalak, IT Txartelen prestakuntza, Kargen manipulazioa eta Bizikleten Mekanika. Prestakuntzak LANBIDEn, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Irun Ekintzan elkartearen baliabideen bidez finantzatu dira.

Etengabeko ikaskuntzaren arloan, onlineko 11 ikastaro kudeatu eta tutorizatu ditugu. Guztira, prestakuntza presentzialeko 4 ordu eta ez presentzialeko 198 ordu izan dira. 89 pertsonen parte hartu

dute; haietatik %73a emakumezkoak, eta %27a gizonezkoak.



Nabarmentzekoa da Elikagaien Manipulazioko eta Alergenoen Kudeaketa ikastaroko ziurtagiria lortu dutela 22 pertsonak, eta matrikulatuen %37ra jaitsi dela matrikulatuen artetik ziurtagiria lortu dutenen ehunekoak.

Era berean, aulaNET – Bidasoa activa onlineko prestakuntza-plataformak, autoprestakuntzarako 9 ikastaro egiteko bide eman du (Hizkuntzak, Ofimatika eta Ofizioak) eta 69 matrikulazio erregistratu dira.



02/4. Laneko bitartekaritza eta praktikak.

Aurten, 2021ean, azpimarratu beharra dago berriro ekin diogula Enpleguaren Astea antolatzeari, bi ekitaldi garatuz: XXV eta XXVI edizioak.

Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako enplegu-agentzia gisa, 110 lan-eskaintza kudeatu ditugu 2021ean, 156 lanpostuko eskariarekin, eta 2.184 hautagaitza aztertaz.

Enpleguaren Astearen bi edizioei dagokienez, nabarmentzekoa da 28 enpresek parte hartu dutela lehenengo edizioan eta 27 enpresek bigarrenean, 484 lanpostu eskatuaz 192 lan-eskaintzen bidez.

Irungo eta Hondarribiko udaletako Enplegua Sustatzeko programen kudeaketa ere garatu dugu, 47 pertsonen kontratazioarako 40 hautaketa-prozesu egiten bi udalerrietan.

Lanekoak ez diren prestakuntza-praktikei dagokienez, 83 hitzarmen kudeatu dira eskualdeko enpresekin, eta garatutako prestakuntza-programak amaitu dituzten pertsonak parte hartu dute.





Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



03

Ekintzailletza eta Jarduera Berria

Ekintzailletza eta Jarduera Berria Sailaren jarduera kultura ekintzailea sustatzean eta ekintzaileei eta enpresa berriei laguntza integrala eskaintzean datza: espiritu ekintzailea bultzatzea, negozio bati ekiteko arreta eta informazioa, ideia baliozkotzeko aholkularitza, mentorizazioa, prestakuntza, enpresa sortzeko legezko izapideetarako sarbidea, azpiegituretarako sarbidea eta sendotzeko laguntza.

Taldea osatzen duen profesionalak ibilbide luzea dute ekintzailletzaren esparruan. Talde horren bidez, kalitatezko aholkularitza pertsonalizatua jaso ahal izango duzu, enpresa-plan bat egiteko laguntza jaso ahal izango duzu, ikastaro eta tailerretan parte hartu ahal izango duzu (kudeaketatik edo trebetasunetatik gizarte-ekonomiara), bai eta finantzaketa bilatzeko sendotze- edo laguntza-programetan ere.

Emandako arreta integrala da, eta proiektu bakoitzerako diseinatzen da, bereziki, fase bakoitzean, eta ekintzailearen eta haren proiektuaren jarduera-sektorearen eskumen-profilean oinarrituta. Negozio-idea guztiak ongietorriak dira, bereziki eskualdearen garapen ekonomikorako eta proiektuorako estrategikotzat jotzen diren sektoreekin lotutakoak: ekonomia digitala, zerbitzu aurreratuak, kultura- eta sormen-industriak eta ekonomia berdea.

Zerbitzu integral honek, ekintzailletzarako aholkularitza eta prestakuntzaz gain, enpresa berrientzako programa espezifikoak eta eskuragarri dauden guneeetako batean instalatzeko aukera barne hartzen ditu; lehen urratsak ematen hasteko coworkinga eta enpresa-jardueraren lehen urteetarako eta enpresa-zentroak.

Ekintzaileei eta enpresa berriei arreta emateko zerbitzuei dagokionez, 596 pertsonak jaso dute arreta, eta 1.402 pertsonak egin dituzte kontsultak urtean zehar.

Kultura ekintzailea sustatzeari, espiritu ekintzailea sustatzeari eta pertsona ekintzailearen irudia balorizatzeari dagokionez, ekintzaileak agertzeko eta enpresak sortzeko giro egokia sortzen duten ekintzak dira, eta ezinbestekoak dira eskualdean aberastasuna sortzeko.

Ekintzailletza sortzaile, berritzaile, teknologiko eta jasangarria bultzatzera bideratutako beste jarduera batzuei dagokionez, eta ekintzailletza-ekosistema indartzera bideratutakoei dagokionez, COVID-19aren ondorengo agertokira egokituta, online formatuetara eta/edo erdi-presentzialetara egokituta, adierazi jarduerak aurreko urtekoa gainditu duela eta aurreikusitako adierazleak lortu dituela. Esparru horretan, Ducoureaux Jauregiaren eranskinean ekintzailletza berritzaileerako espazio berri bat sortzeko proiektua nabarmendu behar da.

Halaber, adierazi behar da egindako jardueren artean daudela Irungo eta Hondarribiko udalek egindako enkarguetan jasotakoak, Irungo eta Irungo Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Itunaren esparruan eta Hondarribia Abian Enplegu eta Garapen Ekonomikoko Planaren esparruan, hurrenez hurren.

Laburbilduz, lan egiten dugu erreferentziatzko leku izaten jarraitzeko, eskualde honetan eta eskualde honetarako ekintza ekintzaile guztien berri izateko, dauden laguntzen edo diru-laguntzen berri izateko eta ekintzailletza-ekosistema osatzen duten erakundeekin harremanetan jartzeko.

Jarraian, 2021ean gauzatutako jarduerak garatzen dira. Horien ikuspegia eskualdearen garapen ekonomikorako eta proiektuorako ildo estrategikoei jarraiki egin zen.



03/1. Kultura ekintzailea eta ekintzailtza-ekosistemaren dinamizazioa.

2021ean hainbat lan-ildo garatu dira kultura ekintzailea sortzera eta ekintzailtza-ekosistema dinamizatzen zuzenduak, ekintzailtza eta berrikuntza sustatuz, potentzial ekintzailea duten pertsonentzako ingurune mesedegarriak sortuz. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Eskualdeko Lanbide Heziketako ikastetxeetan esku hartzeko proiektua (2. Erdi Maila eta 1. Goi Maila), ekiteko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak garatzen laguntzeko, zeinetan sormena, berrikuntza eta ekintzailtza landu diren 300 ikaslerekin baino gehiagorekin. Programa osatzeko, streaming bidezko ekitaldi bat egin zen maiatzaren 17an, Pertsona Ekintzailearen Eguna zela eta.

- Apirilaren 29an Irun Factoryn Krea Bidasoa urteroko ekitaldia ospatu zen eta lehiakortasun sailarekin elkarlanean antolatu zen, bere formatua streaming bidezko online emisiora egokituz (COVID19 egoeratik). Ehun pertsona inguruk parte hartu zuten bertan, eta garai berrietara eta ekonomia zirkularren esparrura egokitzen diren joerei, teknologia berriei eta negozio-ereduen aldaketei lotutako erronkak eta/edo aukerak identifikatu eta partekatu zituzten.

Era berean, PechaKucha aurkezpenak izan ziren, non 4 enpresa berrik beren sormen-enpresak erakutsi zituzten.

- Tailer teknologiko ludikoak, adin txikiko (8 eta 13 urte bitarteko) haurrentzat, STEAM eta gaitasun ekintzaileen garapeneraren ikuspegiarekin, eskola-oporraldietan. Garatutako gaiak eta edukiak 3Dko robotikaren, programazioaren, diseinuaren eta inprimaketaren ingurukoak izan dira, errealitate areagotuko eta errealitate birtualeko elementuak gehituz.



- Eskualdeko Proiektu berritzaileekin lankidetzara, sarietan eta aintzatespenetan; Irun Ekintzan enpresen berrikuntza eta, unibertsitate inguruan, Manuel Laborde. Azken horretan, "Al Composer" proiektuak, adimen artifiziala erabiliz musika konposatzeko aukera ematen duen plataforma anitzeko partituren editoreak, "Gradu Amaierako Proiektuak, Masterra eta Doktorego Tesia" aintzatespena lortu du, kultura ekintzailea sortzeko eta unibertsitatearen ezagutzaz baliatuz merkatuan botere berritzaile izateko helburuarekin.

Ekintzailearen zabalkundearen eta balorizazioaren arloan egindako lana garrantzitsua izan da: 110 Ideiak bizirik buletin, gaikako oharra eta hedapeneko eta komunikazioko beste jarduerak batzuk egin eta bidali dira (prentsa-oharrik).

03/2. Ekintzailtza-ekimenei eta enpresa bideragarriak sortzeari laguntzea.

Ekonomia zirkularren ikuspegi orokorra eskaintzeko, jarduerak ekonomia zirkularren bidez (Ekonomia kolaboratiboa, Materialen Berrerabilpena, Mugikortasun jasagarria...) eta iraunkortasunaren bidean jartzen gaituzten erronkei erantzun egokia emateko, pertsona ekintzaileei eta enpresa berriei laguntzeko ekintzetan gakoak definitzen eta kontzeptua eta pentsamendu zirkularra integratzen lan egin da, Ekonomia zirkularrean eta berdean oinarritutako kontzeptuaren inguruan diseinatzen, lurreratzeko, ezagutzeko, prestatzeko eta identifikatzeko prozesuan.

Ekintzailtza-jarrerak erakartzeko, gaitzeko eta bultzatzeko, Lanbiderekin sinatutako hitzarmenaren esparruan ekintzaileei negozio-ideiak aztertzeko eta enpresa berriak sortzeko eta abian jartzeko prozesuan laguntzeko, aurreko ekitaldiari dagokion programa garatu da, 21 parte-hartzaileekin, eta abenduaren 1ean hasi zen 2021eko deialdiari dagokiona, 10 pertsona gehituta.

Enpresak sortzeko eta ekimen ekintzaile berriei arreta emateko zerbitzuaren bidez, non informazioa eta laguntza tekniko eskaintzen den enpresaren eremu guztietan (kudeaketa, fiskalitatea, finantzaketa, marketina, laguntzak, izapideak, etab.), bai eta enpresa-ekimen berrien bideragarritasunari buruzko aholkularitza ere, urtean zehar 620 pertsonari eman zaie arreta, eta 1.854 kontsultari erantzun zaie, horietatik 239 dagoeneko martxan dauden enprese. Bestalde, 87 bideragarritasun-plan aurkeztu ziren.



Proiektua/enpresa finantzatzen laguntzera bideratutako jarduerari dagokionez, nabarmendu behar da 28 negozio-planei lagundu zaiela finantza-erakundeetatik maileguak lortzeko, 86ri udalen laguntza lortzeko (62 Irun eta 24 Hondarribia), 28ri SEPEren laguntza kapitalizaziorako eta 126 Lanbideren ekintzailtzarako laguntza-lerroetan jasotako laguntzak lortzeko; kasu honetan ere gainditu egin da aurreikusitako helburua.

03/3. Eremu estrategiko, berritzaile eta/edo zirkularretako ekintzailtza-ekimenak.

Agentziako langileen barne-prestakuntzak eta eskualdeko ekonomia zirkular baterako trantsizioan laguntzeari ekiteko moduari buruz urtean zehar planteatutako hausnarketako prozesuak agerian utzi du alde aurretik jarduera-ildo estrategiko batzuk zehaztu behar direla, sailen artean lan egin ahal izateko, trantsizio hori babesten duten ekintzak indartzeko eta koherentzia emateko. Prozesu horretan, dokumentu bat dago zirkulartasunaren ikuspegitik etorkizuneko jarduera-ildoak ezartzeko abiapuntu gisa.

Sailari dagokionez, Via Irun proiektuaren eskutik sor daitezkeen aukerak detektatzeko lan bat egin da. Esparru horretan, Ducoureau jauregiaren eranskina egokitu ahal izateko kudeaketak hasi dira, enpresa berritzaile berriak sortzeko prozesuari lagunduko dion ekintzailtza-gune gisa erabiltzeko, eta, horrela, lankidetzan sartu ahal izateko BIC Gipuzkoaren balio-proposamena Bidasoa bizirikeko ekintzailtza-zerbitzuen eskaintzan.

Bestalde, balio erantsia, eraldaketa eta modernizazioa sortzen dituen jarduera sortzaile, berritzaile eta teknologikoa sustatzen jarraitu da. Horretarako, honako jarduera hauek garatu dira.

- “Bidasoan ekiteko beka” programaren 2 deialdi. Deialdi horietan, aurre-ekintzailtzako fase berritzailean zeuden 5 proiektu onuradun egon ziren (Adimen Artifizialean oinarritutako Software Garapena/APP, moda iraunkorreko jantzigintza eta salmenta diseinua, “Euskadi zapoaren bidez” ikus-entzunezko ekoizlea, Artisanu-bitxigintza organikoa eta WAVE BACK - Moda iraunkorreko marka).

- Ekintzaileei eta “Emprende en miércoles” programako enpresa berriei zuzendutako 11 gaikuntza-saio. Ehun bat pertsonak parte hartu dute.

- Inplantalariak trebakuntza teknologikoari buruzko 24 talde-saio, SPRI-Enpresa Digitalarekin lankidetzan. 174 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.

-6 enpresak jaso dute Inplantalariak banakako aholkularitza teknologikoa.

- Ideia/enpresa berritzailea aintzatesteko 5 ekimen ekintzaile.

- Ekonomia zirkularreko 22 ekimen ekintzaile lagunduak.

- Sormen-industrien sektoreko 44 ekimen ekintzaile lagunduak eta Bidasoa Makers topaketa bat, abenduaren 18an.

- 5 ekimen-beka.

Era berean, sormen-industrien sektoreari dagokionez, Garapenen ICC lantaldean lanean jarraitu da, lankidetzako proiektuak eratzeko.

Ekimen ekintzaileen berrikuntzaren eremu honetan, nabarmendu behar da 2021ean Ducoureau Jauregiaren eranskineko instalazioetan ekintzailtza-gune berri bat egokitzeko proiektuaren lehen urratsak eman direla.

Izaera bereziko espazio honek gure balio-proposamena berrikuntzaren sustapenean hobetzea ekarriko du, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailarekin batera erronka eta erronka berriak landuz eskualdean enpresa-ekimen berritzaileak heldu eta abian jartzeko, ikuspegi bikoitzetik. Eragile bideratzaile gisa jardunez, bai enpresa berritzaile berriak sortzeko prozesuan, bai negozio-ideia berriak dituen enpresa bateko kideek eskualde berean eta BIC Gipuzkoarekin lankidetzan estuan egin ahal izan dezaten bultzatzeko.



03/4. Enpresa berriak sendotzea eta jarduera berriak erakartzea.

Oro har, COVID19ak eragindako krisiak eragin zuzena izan du jarduera ekonomikoan eta enpresa-sarean, eta horren eragina epe ertain eta luzean zabalduko da. Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Departamentuak, lurraldeko hainbat eragilerekin lankidetzan, BERRABIARAZI programa jarri du abian, enpresek beren jarduera berreskura dezaten. Bidasoa Bizirik gure eskualdean bitartekaritza-lan bat eginez lagundu du, eta, zehazki, sail honetatik koronabirusari aurre egiteko diru-laguntzen eta baliabideen berri eman dugu, aholkularitza-zerbitzuaren bidez, sendotze-prozesuan dauden eskualdeko 20 enpresatara joz (5 urte edo gutxiagorekin), GFAk emandako tresnarekin egindako autohausnarketa-prozesu batean mentorizatuz, enpresa suspertzeko abiapuntu gisa.

Bestalde, sailak laguntza eskaintzen jarraitu du Bidasoa bizirikek kudeatzen dituen Puntala bizirik, Arretxe-Ugalde, Ficoba eta Zaisako enpresa-zentroetan dauden enpresei.

Era berean, enpresa sendotzeko etapan laguntza eskaini da, Eguerdi On Topaketak coaching-programaren bidez (taldekoa eta banakakoa). Eskualdeko 21 enpresa berrik parte hartu dute programa horretan.

Azkenik, adierazi behar da eskuragarri dagoen lurzoruari buruzko informazioa eta jarduera ekonomikorako eta haren ikusgarritasunerako espazioak hobetzearen ildotik, urteko lehen seihilekoan amaitu zirela kalean bertan egindako lana eta artxiboetako informazioaren berrikuspena eta eguneratzea, Irungo eta Hondarribiko udalekin, eta Bidasoa Oarsoko Industrialdeko gerentziarekin harremanetan, egiten diren jarduketak koordinatzeko.





Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



04

Turismoa

2021 urtea oraindik ere pandemiak baldintzatuta egon da. Turismoaren sektoreak erritmo desberdinetan lan egin du: ostatuak, jatetxeak, hartzaileen zerbitzu-enpresak, kirol jarduerak, etab. Aurreikusitako eta ohiko jarduera asko ordezkatu edo birbideratu behar izan dira. Kaleko sustapenen edo turismo azoken bidez zuzenean sustatzeko jarduera gehienak ezin izan dira egin aurrean, baina aprobetxatu egin da promozio-euskarri berriak berrargitaratzeko, adibidez, planoak edo "Irun Berdea" gida, eta sare sozialen bidezko promozioa sustatzeko.

Proiektu garrantzitsuetako bat, Hondarribia eta Irunerako turismoa dinamizatzeko planaren 2020-2025 jardueraren barruan, existitzen diren turismo-produktuak indartzeko lan egitea edo lehiakortasuna indartzeko produktu berriak sortzea izan da. Horretarako, lan-mahai bat sortu da sektore pribatuarekin, beharrak eta ekimenak identifikatzeko eta lan egiteko plan bateratu bat garatzeko. Mahai hori, gaur egun, 8 enpresak, Bidasoa Bizirikeko departamentuak eta segmentu turistiko hauek lantzen dituzten dinamizatzaile talde batek osatzen dute: MICE eta OCIO.

Basquetourren eskutik, diagnostiko bat egiteko eta DTI (Helburu Turistiko Inteligentea) eskuliburuak gure eskualdera egokitzeko proiektu batean parte hartu dugu, eta Marketing Planean zehaztutako produktu-lerroak diseinatu ditugu: gastronomia, Nautika eta Euskal Kostaldea, turismo familiarra, Kode Etikoa edo Destino Seguru.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, turismo mahaietan elkarrekin egindako turismo-plan estrategikoa behar bezala garatzeko lan egin da.

Destino Euskadi elkartearekin aurreikusitako jarduerak ere birbideratu dira, eta aurrean pleguak egin dira Idazkaritza teknikoak eta egin beharreko jarduerak abiarazteko.

www.visitahondarribiairun.eus webgunearen bidez, bisitarienezako eta tokiko publikoarentzako posizionamendu ikusgarriagoa eta zuzenagoa bultzatu dugu. Hilabete hauetan

14.342 zale, 14.008 jarraitzaile eta 274 argitalpen lortu ditugu.

Aurtengo kanpaina honakoa izan da:

- 3 hilabete sare sozialetan, Mix Creativos enpresaren bidez.
- Bannerrak eta iragarkiak Guide du Pays Basquen eta Frantziako Sud Ouesten argitaratzea.
- Erreportajeak argitaratzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.
- Eskualdeko 3 erreportaje Tus destinos.net sare sozialetan.
- Spot-a DBUSen Aste Santuan.

Irungo eta Hondarribiko Udalekin turismoa sustatzen jarraitzen da. Irungo kasuan, Irugurutzetako Meatze barrutiarekin, Oiassorekin eta Atlantikoko Erromatar Hirien Sarea berrabiarazten. Hurrengo urteetan landu beharreko proiekturik garrantzitsuenak, Next Generation laguntzen barruan, Irun Erromatar Destinoa DTI da.

Hondarribian, Erdi Aroko Hirien Sarearekin sustapen-ekintzak bultzatzen jarraitu da: "En clave de Re"d Musika proiektua, sareetan eta webean komunikazio kanpainak, Argazki Lehiaketa bat Instagramen. FotoRed, pintxo eta tapa XII. Nazioarteko on-line Lehiaketa, natura alorreko produktu turistiko berri bat, Sarearen eta bere udalerrien sustapenerako euskarrien on-line formatuko edizioa.

Film Comission-ekin daukagun hitzarmenean lan egin da ekoizleek kokapenarako behar dituzten enpresei eta zerbitzuei buruzko beharrezko informazioa emanez elkarlanean aritzeko. Guztira, artatutako kontsultak 5 izan dira. Gainera, horrekin batera, Hondarribian Zoom Tendencias programaren grabaketa kudeatu da, eta EITBren elkarriketak ere bai Hondarribian.

Kalitatearen sistemari dagokionez, betetze maila handia izan da etengabeko hobekuntzei esker. Asebetetze inkestetan %97,56 izan da datua.



04/1. Lankidetzaren publiko-pribatuko jarduerak. Produktuaren garapena

Sektoreko enpresei informazioa, aholkularitza eta jarraipena Covid laguntzen inguruan.

- Mahai subsektorialen eta Produktuaren Kluba antolatzea eta koordinatzea: produktu nautiko eta gastronomikoaren klubaren barnean egin ahal izan dira jarduerak gehien.
- Irungo Udalarekin batera parte hartzea eta bultzatzea Turismo Industrial, Burdinaren Ibilbidea eta Irun Berdea, eta sustapen-euskarriak egitea.

Hiri Erromatarren Sare Atlantikoaren bultzada.

Irunen ostalaritza jarduerak dinamizatu eta hedatzeko APP bat sortzen parte hartu da.

- Hondarribiko Udalarekin batera Erdi Aroko Hirien Sarean parte hartu eta bultzada eman.

Sektore nautikoko Komunikazio Plana abian jartzea Hondarribia Abian programaren bitartez. Komunikazio kanpaina sare sozialetan. Eskaintza nautikoaren udako liburuxka, kartelak, etab.

2 egunetan (maiatza eta uztaila) jarduerak nautikoei buruzko stand informatibo bat jarri da. Hala nola jarduerak buruzko argazki erakusketa bat Hondarribiko San Pedro kalean, panel informatibo bat kirol portuan, EKP-en instalazioetan, komunikazio kanpaina bat sare sozialetan eta lehiaketa bat instagramean.

04/2. Turismo lehiakortasuneko jarduerak.

- Kode Etikoa kalitate programa (Ihen Praktika Onak eta TICS) eskualdeko 17 establezimenduren eta Bidasoa Biziriketako turismo departamenduaren partaidetzarekin. Atxikitako enpresek beren konpromisoa erakutsi dute jasangarritasun eta erantzukizunarekiko, aipatu kode horri atxiki eta ezartzeko fase guztiak betez.
- Destino segurua. Kalitate-programa honetan parte hartzen duten establezimenduak 17 dira.
- ISO kalitate ziurtagiria.
- DTI gidaliburuak eskualdera egokitzea.
- Laguntza eta subentzioei buruzko informazio zerbitzua. Udal, Eusko Jaurlaritza eta Aldundien laguntza eta subentzioei buruzko informazioa bildu eta sektorean zabaltzeko da. Laguntzei

buruzko aholkularitza eta jarraipena ostalaritzako 150 enpresei eta 5 jarduerak.

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Irun eta Hondarribiko Udalen laguntzen berri eman zaie ostatu eta zerbitzu nautikoen sektorean 50 enpresa eta 7 jarduerak.


- Marketing on line prestakuntza digitala eskaini da sektorearentzat. Turismo sektorearen lehiakortasuna hobetzeko prestakuntza marketing digitalean 20rentzat, lan-bileretan egindako eskaeren ondorioz. Kode etikoen barruan, 17 enpresek marketing digitaleko nahitaezko prestakuntzak jarraitu dituzte. Era berean, beste erakunde batzuek eskainitako prestakuntza digitaleko ikastaroak egitea bultzatu da, adibidez, Hub Gipuzkoa, Enpresa Digitala, etab.

04/3. Informazio, garapen eta sustapen alorreko jarduerak

Webgunea etengabe eguneratzen da informazioarekin, iragarkiekin, elementu ikusgarriekin eta esperientzia berrien eskaintzarekin.

- Gastronomia. Euskadiko Gastronomia Klubaren barnean 14 establezimendu berri sartu ditugu.

Departamendutik produktu enogastronomikoarentzat jarduerak-plan bat prestatu da 2021erako, Basquetourrekin egindako lanaren ildotik. Hondarribiko Erdi Aroko pintxoaren eskaintzaren dinamizazio gastronomikoa egin da Erdi Aroko azokarekin batera, eta Hondarribiko 9 establezimenduk hartu dute parte. Dies Oïssonis jaialdirako, Erromatar Pintxoaren Ibilbidea dinamizatu da, 18 establezimenduren parte hartzearekin.



Ficobako Be Veggie azoka dela eta, eskaintza gastronomikoa beganoa duten Hondarribiko eta Irungo establezimenduen hedapena erakarri eta sustatu da Ficobako komunikazio kanaletan.

- Hondarribiko ekoizpenaren astea. Online ekitaldia, eta 9 parte-hartzaile izan dituzten tailer gastronomikoak eta sare sozialetan zabaltzea.



-Esperientzia enogastronomikoak: Esperientzia kopurua: 15. Esperientzia berri bat sartu da eta euskarrietan hobekuntzak egin dira.

-Euskadi esperientziak.

- Jarduera turistikoak: 4 establezimenduren 7 esperientzia. Hiruzta (2), Félix Manso (2), BBB (1), Ola (1), Vinoteca Mendibil (1).

- Zerbitzu turistikoak: Establezimendu 1en 3 esperientzia. Arma plaza Fundazioa (3).

- Zerbitzu nautikoak: Esperientzia 1 Kayak Basque Country.

Turismoko esperientziak Smart Box-en bidez merkaturatu dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko Turismo Sailaren sustapen-kanpainaren barruan.

Turismo familiarra: Produktu horretan 6 establezimendu berri sartu dira, eta horien ziurtagiria egin da Turismo Familiarraren Klubean. 4 establezimendu Irungoak dira eta 2 Hondarribikoak.

Artizarra Landetxea ostatu-establezimendu gisa eta Hondarribiko Arma plaza Fundazioaren Interpretazio Zentroa aisialdiko establezimendu gisa, eta Irunen Ola Sagardotegia eta Eth Bistro Hotel Irun jatetxea alorreko establezimendu gisa; Ekoetxea Txingudiko Interpretazio Zentroa natura alorreko establezimendu edo establezimendu ludiko gisa, eta Eth Irun hotela ostatu gisa.

Une honetan dagoeneko Hondarribiko eta Irungo 13 establezimendu dira Turismo Familiarrean parte hartzen dutenak eta zigilua edo ziurtagiria dutenak. Ostaturen artean, Jauregui hotela, Rio Bidasoa hotela, Eth hotela eta Artizarra landetxea ditugu; jatetxe jarduera dutenen artean Sugarri jatetxea, Atalaia jatetxea, Ola sagardotegia eta Bistró Eth Hotel Irun.

Turismo Familiarraren Klubean sartuta dauden interpretazio zentro eta museoen artean Ekoetxea Txingudi interpretazio zentroa eta Oiasso Museoa ditugu, eta Arma Plaza Fundazioko bisita gidatuak; eta Turismo aktiboaren alorrean enpresa bakarra Navegavela da, jarduera nautikoak eskaintzen dituena.

-Turismo nautikoa: Hondarribiko Abian sektore nautikoa dinamizatze planaren barruan komunikazio plan bat eta kanpaina bat egin dira sare sozialetan, eta udako jardueren liburuxka bat ere argitaratu da.

-Azokak eta Promozioak. Guztira 6 azokatan parte hartu da: Fitur, Navartur, Bioterra, Bilboko Expovacaciones, Valladolideko Intur eta Beveggie Ficoban.

-Aurten, sare sozialen sustapena nabarmendu da, urteko komunikazio-plan baten barruan.


- Promozioa Sud Ouest bezalako komunikabideetan Iparraldeko merkaturan eraginez, Gipuzkoa Kostako helmugekin eta Guide du Pays Basquerekin batera interneten.

Kanpaina digitala da sare sozialetan eta hedabide interesgarrietan, bisitariak erakartzeko estrategiarekin, mugikortasun-murrizketak arindu ondoren.

Bereziki, Frantziako publikoa nabarmendu da, Sud Ouest, TVPI Iparralde eta Guide du Pays Basque eta Guide du Routard Pays Basqueren bitartez.


- Informazio turistikoko euskarriak Hondarribia eta Irungo spot turistikoak eta argazki-erreportajea.

Irungo bisita gidatuak dinamizatze Planak Irundik barrena liburuxka argitaratu da uda sasoiari bisitatu daitezkeen baliabideekin. Bisita gidatuak egin dituzten pertsonen kopurua 53 izan da, batez ere eskualdekoak eta Gipuzkoakoak.



Turismoko planoak ere berrargitaratu eta eguneratu egin dira, 60.000 ale, eta Irun Berdea liburuxka 10.000 alerekin. Hondarribia eta Irungo iragarki turistikoa eguneratu egin da Donostiako Ongi Etorri Bisitariaren Gidan publizitate bezala sartzeko.

www.bidasoaturismo.com web berrian lanean jarraitzen dugu, eduki arin eta praktikoeekin, destino turistikoa saltzeko.



Egindako kontsultak 29.475 izan dira.



- Bisitari eta turistei arreta. Kontuan hartuta hilabetetan ez direla turismo bulegoetan bisitaririk hartu mugikortasun-murrizketak egon direlako, aurtun konplikatua goa izan da estatistikako datuak alderatzea. Hondarribian, Portuko bulegoa apiriletik abendura bitartean egon da zabalik.

Presentzialki egindako kontsulta kopurua, guztira:

63.435 Presentzialki.

Kontsulta ez-presentzialak, guztira:

1.383 ez-Presentzialki.

- Gipuzkoako Kosta, Euskal Kostaldea eta Euskadi Helburu Markan parte hartzea.

- Itourbask berritzea, Turismo Bulegoen euskal sarea. Urte osoan irekita 2 bulego eta aldi baterako irekitako informazio-puntua Portu auzoan.

04/4. Sareak.

- Hendaiarekin proiektu bateratuak aurrera eramatea Mugaz gaindiko Partzuergoaren bitartez.

- Idazkaritza teknikoko zereginak bete eta, beraz, Erdi Aroko Hirien Sarea bultzatu eta koordinatu.

-Laguntza tekniko Erdi Aroko Hiri eta Herriei, Erdi Aroko Hiri eta Herrien Musika "en clave de Re"d proiektua, komunikazio kanpaina sareetan eta weba, Facebook eta Instagram dinamizatu, argazki lehiaketa Instagramen. FotoRed, pintxo eta tapa XII. Nazioarteko on-line Lehiaketa, natura alorreko produktu turistiko berri baten sorrera eta sustapenerako euskarriak on-line formatuan editatzea.

- Idazkaritza teknikoko zereginak bete eta, beraz, Atlantikoko Herri Erromatarren Sarea bultzatu eta koordinatu.

-Euskadi Helburu Elkarte sustatu.


- Proiektu europarretan parte hartzea Bidasoa Bizirik beste departamentuekin batera.

04/5. Informazio turistikoa emateko zerbitzua.

Bidasoa eskualdeak informazioa emateko bi puntu ditu Hondarribian eta bat Irunen.

Turismo bulegoetan bisitari presentzialak:	63.435
Turismo bulegoetan kontsulta ez-presentzialak:	1.383
Jarraitzaileak facebook-en:	14.342
Guztira bisitariak www.bidasoaturismo.com:	29.475


Kontsulta presentzial motak (Rrderaz)



Kontsultei dagokienez, azpimarratu, bisitarien jatorria batez ere ondorengoa dela: Katalunia, Madrid, Euskadi, Aragoi, Valentziar Erkidegoa eta Murtzia. Atzerritarren jatorria batez ere Frantzia da, gero Alemania, Holanda, Luxenburgo eta Belgika; azken hauek gutxiago, Covid-a eta murrizketak direla eta nazioarteko bisitarien kopurua asko jaitsi delako. Kontsultak batez ere udako hilabeteetan zentratzen dira.

Okupazioei dagokienez, urteko jaitsiera gertatu da establezimendu gehienek ia urte osoan itxi egin dutelako pandemiagatik eta mugikortasun-murrizketak direla eta (uda sasoiaren ezirik) ez direlako bisitariak etorri.

Okupazioaren batz bestekoaren bilakaera hilabeteka.





05

Behatokia, Europako Lankidetzeta eta Partzuergoa

2021 urte hau erronka handia izan da hainbat alderditan. Alde batetik, departamentuak aurreikusitako jardueri berrekin zaie. Covid-19aren pandemiak sortutako gorabeherak Bidasoa Bizirikek Partzuergoarentzat kudeatzen dituen mugaz gaindiko proiektuak birplanteatzera eraman dute, hala nola kirol eta kultur ekitaldiak -Mugikortasunaren Astea eta Bidasoa Folk jaialdia- formatu berri batekin antolatu behar izan direnak, baina publikoaren erantzun oso ona izan dutenak. Turismoaren promozio eta informaziorako egiten dugun programa ere informazioaren eta baliabideen digitalizazioan dagoen gero eta joera handiagoari egokitu zaio.

Bestalde, 2021 urtea trantsizio urtea izan da Agentziatik koordinatzen ari garen proiektu europarrei amaiera eman eta NEXT GENERATION funts europar berriek markatutako erronka handiekin programazio-aldi baterantz bideratzeko, Transformazioa eta Erresilientzia Berreskuratzeko Planaren (PRTR) esparruan, pandemiaren ondorio ekonomiko eta

sozialei aurre egiteko aldi baterako errekupeazio-tresna aparta baita. Zentzu horretan, Bidasoa Bizirikek lan handia egin du eskualdeko lehentasunezko proiektuetarako laguntza horien jarraipena egiten eta laguntza horiek lortzen, gizarte eta ekonomia ekologikoagoa eraikitzeke helburuari erantzunez, zerbitzuen eta baliabideen digitalizazioa txertatuz eta berdintasun handiagoa, lurralde eta gizarte kohesioa sortzea ahalbidetuz.

Horrela, eskualdetik datozen 3 urteetarako garatzeko proposatzen diren lehenengo proiektuak honako hauek dira: helburu horiek mugikortasun jasangarrian aplikatzea, hiriaren berroneratzea, enpresei eta herritarrei zerbitzuak hobetzea digitalizazioaren bidez, eta turismo baliabideen kudeaketa iraunkorra.

Azkenik, Bidasoko Behatokiak jarraitzen du Bidasoa Biziriken informazio-tresna izaten eskualdeko ekonomiaren bilakaerari eta berrikuntzei dagokienez nahiz pandemiak sektoreetan duen eraginari dagokionez, susperraldiaren lehenengo zantzuak ditugularik.



05/1. Bidasoko Hiri-Behatokia.

2021 urtean eskualdeko sektore sozioekonomiko desberdinen 500 indikadore baino gehiago eguneratzeko lanean jarraitu da, baita Irun eta Hondarribiko udalerrietako informazioa hedatu eta sortzeko tresna gisa txostenak eta buletinak eginez.

Behatokiak 70 albiste baino gehiago argitaratu ditu, baita dokumentu interesgarriak ere 9 arlo tematikoei buruz, eta lurraldean erreferentziazko tresna bezala finkatu da eta Bidasoa eskualdearen errealitate ekonomiko eta sozialaren antena bezala ere bai. Egindako kontsultak %14 baino gehiago handitu da.

05/2. Proiektu europarrak: Next Generation funtsak eta 2021-2027 programazio berria.

2021 urtean proiektu europarrentzako denboraldi berri bat ireki da.

Alde batetik, zazpi urteko aldi bat itxi da (2014-2020), non Bidasoa Bizirik CONECT Innovation Bai! proiektua lideratu duen eta Irun eta Hondarribiko Udalei laguntza teknikoa eman die beste 4 proiektutan (Creacity, Ederbidea, Ibilbide Bereziak eta Smartmob), mugaz gaindiko kooperaziorako POCTEFA proiektuak, hauen bitartez ireki direlarik berrikuntza enpresarialean, sormen ekintzaileetan, mugikortasunean eta turismo kultural eta jasangarriaren promozioa bezalako alorretan lan egiteko bide berriak. Proiektu horiek sendotu dituzte enpresekiko, ekintzailetzaren ekosistemarekiko eta herritarrekiko harremana.

Bestalde, trantsizio-aldi berri bat hasten da kooperazio eta lurralde-garapenekeo programen inguruan 2021-2017 aldirako programazio berriarekin, eta Europar Batasuneko NEXT GENERATION Funtsak lortuz eta Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin, europar mailako erronka bat dena koronabirus pandemiak eragindako kalte ekonomiko eta sozialak konpontzeko.

Next Generation Funtseko 750.000 milioi eurotatik 70.000 euro dagozkio Espainiako Gobernuak aurkeztutako Planari, alegia, ekonomia orokorki eraldatzea ardatz izango duten 4 erronkei erantzuteko:

- i. Trantsizio ekologikoa.
- ii. Trantsizio Digitala.
- iii. Lurralde eta gizarte kohesioa.
- iv. Genero berdintasuna.

Bidasoa Biziriketik, kanpoko laguntza espezializatuen bitartez, erronka horiek lortzeko ekarpenen bat egin dezaketen eskualdeko proiektuak finantzatzeko aukera horien inguruan jarraipen estua egin da.

Lehenengo fase batean, funtsen kudeatzaile diren Ministerio desberdinek erakunde publiko eta enpresen proiektuak eta lan-ildoak ezagutzeko eginiko intereseko adierazpenei erantzun zaie.

Horrela bada, eskualdetik 6 proposamen aurkeztu dira mugikortasun jasangarri eta hiriaren berronertzearen inguruan, merkataritzaren modernizazioa, digitalizazioa eta Administrazio publikoko zerbitzuen hobekuntza eta baliabide turistikoek kudeaketa jasangarriaren inguruan.

Bigarren fase batean, laguntzen deialdiak argitaratzearekin batera, intereseko adierazpenak 3 proiektutan zehaztu dira: Destino Turistiko adimenduna (DTI) Irun - "Oiasso Hiri Erromatarra" (2021eko itxieran onartua), Irungo merkataritzaren modernizazioa, eta Irun jasangarria, irisgarria eta digitala (hiri garraioa elektrifikatu eta digitalizatzea eta tokiak oinezkoentzako bihurtzea mugikortasunaren ardatz gisa). Azkeneko bi horiek erabaki zain daude.



05/3. Partzuergoa.

Bidasoa Biziriketik bere gain hartzen du mugaz gaindiko lankidetzaproiektuen kudeaketa Bidasoa Txingudi mugaz gaindiko Partzuergoaren jarduera-eremu nagusietan: Turismoa, kultura, euskara, kirola, mugikortasuna, ondare historikoa eta kulturala.

Kudeaketa hori, urtero berritzen den kudeaketa-hitzarmen baten eta 2021ean honako ekintza nagusi hauek egin dituen Agentziako talde tekniko baten bidez egituratzen da:

05/3.1. Mugikortasunaren Europar Astea.

Mugikortasunaren Europar Astea parte hartu zen 4 jarduera desberdin antolatuz Irunen, Hondarribian eta Hendaian irailaren 18tik 19rako asteburuan:


- “Energiaren alde pedalkadak ematen” animazio bat bizikleta erabiliz klima aldaketaren aurka egiteak daukan garrantziaz kontzientzia hartzeko.
- “bizikleten diagnostikoa” tailer bat norberak konpontzeko ohitura berriak hartuz ekonomia zirkularri laguntzeko.
- “Segurtasuna bizikletan” stand bat, joan-etorrietarako sistema desberdinen arteko bizikidetza sustatzeko.
- Txingudi Korrika 10 km-ko lasterketa herrikoia egiten da “Zure osasunagatik, modu jasangarrian mugitu” lelo ofizialpean.



05/3.2. Smartmob proiektua.

Smartmob mugikortasun adimendunaren eta jasangarriaren Europako proiektuaren esparruan, mugaz gaindiko mugikortasunaren mikro-leku berri baten edukiak garatzen aritu gara, herritarrek gure lurraldean eskura dituzten aukera guztien berri izan dezaten.

Lan horiek Irun, Hondarribia, Hendaia, Donibane Lohizuneko Udalen, Hendaiaiko eta Donibane Lohizuneko turismo bulegoen, Syndicat des Mobilités Pays Basque Adour eta Nouvelle Aquitaine – Euskadi – Nafarroa euro-erregioaren laguntza dute.



05/3.3. Turismoa sustatzea.

Urte honetan, sare sozialen bitartez turismoa promozionatzeko bi kanpaina kontratatu dira, eta iraila eta urria bitartean egin ziren gure lurraldeko baliabide turistikoiei buruzko bideo batzuetatik abiatuta:

YouTube kanpaina bat Limoges, La Rochelle eta Périgueux zonaldean.

Facebook/Instagramen kanpaina bat Valentzia, Zaragoza eta Valladolid zonaldean.

Gainera, sektoreari informatzeko newsletter bat idazteko lanetan jarraitu zen eta aurten ibilbide bereziei buruzko proposamenei dedikatu zitzaion, non gure badiaren ingurune naturala den protagonista.

Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko Partzuergoaren web atarian dago informazioa eskuragarri:
www.irunhondarribiahendaye.com.

05/3.4. Kultura eta euskara.

Hiru hirietako kultur jarduera nagusiak biltzen dituen kultur agenda Bidasoaren Mugaz gaindiko Partzuergoaren aisialdi eta



turismo atarian jasotzen da www.irunhondarribiahendaye.com

BidasoaFolk-en 20. Edizioa azkenean egin ahal izan zen, abuztuaren 20, 21 eta 22an, osasun neurri zorrotzekin, eta hori publikoak eskertu zuen zerbait izan zen, kontzertuek iraun zuten hiru egunetan jendetza bildu zen eta. La Musgaña Vanesa Muela-rekin, Euskal Barrokensemble, Alba Carmona, Juan Jose Robles, Lambrusquera eta Cocanha izan ziren oraingoan talde gonbidatuak, eta haien kalitateak, hurbiltasunak eta

eszenaratzeak ez zuen hutsik egin eta jaialdia berriz ere indarrez abiatu zen gure eskualdean.

Euskara bultzatzeko neurri gisa, alde batetik, hiru udalerrietan gaurkotasuna hedatzeko euskara erabiltzen duten komunikabideei ematen zaizkien urteroko laguntzak nabarmentzen ditugu eta, bestetik, Bertso Eskolako klaseak eta tailerrak, geneuzkan bost talderekin berrabiatu ahal izan genuen eta. Albiste ona, gure lurraldean Bertsolaritzaren haztegi eta erreferentea delako.

XX.
Bidasoa Folk
2021
Festival

HONDARRIBIA • IRUN • HENDAYE

20/08 **EUSKAL BARROKENSEMBLE**
(Euskadi)

LA MUSGAÑA CON VANESA MUELA
(Castilla - León)
19:00 h HONDARRIBIA KASINO ZAHARRA

21/08 **JUAN JOSE ROBLES**
(Murcia)

ALBA CARMONA
(Barcelona - Andalucía)
20:00 h IRUN PLAZA JUNCAI

22/08 **LAMBRUSQUERA**
(Gascogne - Pau)

COCANHA
(Occitanie-Toulouse)
21:00 h HENDAYE GAZTELU ZAHAR

AGOSTO - ABUZTUA - AGOSTO

Logo of the Basque Government (Euzko Legebiltzaria)
Logo of the Basque Folk Festival (Bidasoa Folk Festival)
Logo of the Basque Baroque Ensemble (Euskal Barrokensemble)
Logo of the Bidasoa Folk Festival (Bidasoa Folk Festival)
Logo of the Bidasoa Folk Festival (Bidasoa Folk Festival)
Logo of the Bidasoa Folk Festival (Bidasoa Folk Festival)



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



06

Proiektuak

06/1 Ekonomia zirkularra bidasoko eskualdearentzat

BIDASOAN EKONOMIA ZIRKULARRAREN ESTRATEGIA BAT IZATEKO BEHARRA

Ekonomia zirkularra eredu sozio-ekonomikoaren proposamen bat da, jarduera enpresarialaren eraldaketa eta bultzada bilatzen duena. Jarduera ekonomikoaren sorrera eta baliabide finitoen kontsumoaren arteko bereizketa ziurtatzen du, hondakinen ezabatzea eta energiaren iturri berriztagarrietara eraldatzea inplikatur.

Euskadik badu Ekonomia Zirkularren Estrategia 2030, eta berorren erronka da planteamendu hau kapitalizatzea jarduera-maila desberdinetan, bai lurraldearen ikuspegitik (eskualde mailakoa, udal mailakoa) eta bai prozesuan esku hartzen duten agente desberdinen ikuspegitik. enpresak, hezkuntzako eragileak, zentro zientifiko-teknologikoak,

sustapen ekonomikoko erakundeak, gizarte eta ingurumen alorreko eragileak eta herritarrak orokorki.

Bidasoa Bizirikek, "Bidasoa eskualderako ekonomia zirkularren oinarri estrategikoekin", EAeko estrategia orokorrari benetako balioa eman nahi dio, Bidasoa eskualdearen trantsizio-prozesuaren alderdi kritikoak ikusaraziz, prozesuaren eragileak nabarmenduz (enpresa zehatzetatik hasi eta prestakuntza eta ezagutza sortzearekin lotutako erakundeetara) eta gure eskualdearen etorkizun zirkularra eraikitzeko aukera espezifikoak aktibatuz.

Lehenengo oinarri estrategiko hauek landuta, hurrengo urteetarako lan-ildo berri eta garrantzitsu bat abiatu du.



BIDASOA ZIRKULARRA esparru estrategiko bat da, eskualdeko enpresa-eragileek eta gizarteak ekonomia zirkularren aukerak hedatu ditzaten.

BIDASOA ZIRKULARRA erabakiak hartzeko **bide-orri nagusi** bezala antolatu da eskualdeko ekonomiaren sustapeneko eragileentzat, Lanbide Heziketako zentroentzat, zerbitzu espezializatueta enpresentzat eta berrikuntza eta trantsizio ekologikoa sustatzeko erakundeentzat.

BIDASOA ZIRKULARRA enpresa-sarearen **lehiakortasuna** sustatu nahi du, eta, aldi berean, ekonomia zirkularrerako trantsizioa bultzatu, lankidetzaren, ekintzaitzaren eta berrikuntzaren ikuspegitik.

BIDASOA ZIRKULARRA balio-ekarpena egiten dio Bidasoaldetik Euskadik ekonomia zirkularren alorrean erreferente izateko egin duen apustuari, eta eskualderantz bideratzen du datozen urteotan jasotzekoak den finantza-baliabideen fluxuaren zati bat.

Bidasoko Ekonomia Zirkularren ekintza-planak lau programa ditu

A - GAIKUNTZA PROGRAMA

Eskualdeko enpresa eta eragile guztiei ekonomia zirkular baterantz igarotzeko beharrezko gaitasunak ematea bilatzen du.

- **Hondakinik gabeko eskualde baterantz jotzea**
- **Ekonomia zirkularrari lotutako abantaila lehiakorak aprobetxatzea**
- **Eskualdean enplegu zirkularra sortzea**

B - LANKIDETZARAKO PROGRAMA

Eragile enpresarial eta industrial desberdinen arteko interakzioa bilatzen du. Eskualdean eta eskualdetik kanpo eragile pribatuen artean harremanetan jartzeko eta elkarlanerako ekimenak garatzeko behar diren tresnak eskainiz.

- **Ekonomia zirkularrari lotutako abantaila lehiakorak aprobetxatzea**
- **Eskualdean enplegu zirkularra sortzea**
- **Ekonomia zirkularreko lankidetzak-aukerak bultzatzea**

C - SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

Lurralde osoa kontzientziatu nahi du ekonomia zirkularraren baten alde egin behar diren inguruan, eta aldi berean, ekonomia horrek enpresei nahiz lurraldeko gainerako eragileei eskaintzen dizkien aukerak nabarmendu.

- **JARDUNBIDE EGOKIAK ESQUALDE OSORA ZABALTZEA**
- **KOMUNITATEA ERAIKI ZIRKULAR KLABEAN**

D - ZIRKULARIZAZIO PROGRAMA

Eskualdeko enpresen artea ohitura berriak bilatzea du helburu, erabiltzen diren produktuen eta materialen zirkulazioa ahalbidetuz eta era horretan erabilera berri bat emanez.



Azken helburuak

HONDAKINIK GABEKO ESKUALDE IZATEKO BIDEAN

Modu zirkularrean pentsatzeak esan nahi du ekoizpen-prozesuak diseinatzean ahalik eta gehien murriztea ekoizpen-eta kontsumo-zirkuitutik irteten diren hondakinak. Batere hondakinik ez sortzea utopia dela dirudi, baina hori izan behar da Bidasoaldea zirkularizatzeko prozesuaren helburua.

EKONOMIA ZIRKULARRARI LOTUTAKO ABANTAILA LEHIAKORRAK APROBETXATZEA

Eskualdean ekonomia zirkularra ezarrita, enpresen lehiakortasuna handitu nahi da. Ekonomia zirkularrak bidea egiten dio Bidasoaldeko ekoizpen-ehunari negozio-eredu berriak eta merkatu berriak bilatzeko eta ekoizpen-prozesuak optimizatzeko, eraginkorragoak izan daitezzen. Bidasoa bizirik-ek lehiakortasuna hobetzeko aukera horien aprobetxamendua sustatu nahi du, eskualdeko enpresak garaiz posiziona daitezzen.

ESKUALDEAN ENPLEGU ZIRKULARRA SORTZEA

Ekonomia zirkularrak eragin zuzena izango du lan-merkatuan, eta horrek esan nahi du materialak edo produktuak kudeatzeaz gain, pertsonak ere kudeatu behar direla. Egia da lanpostu batzuk desagertzea, edo goitik behera aldatu, baina trantsizioa sustatuko duten lanpostu berriak ere sortuko dira. Ekonomia zirkular batek askotariko enpleguak sortuko ditu: kualifikazio handikoak (diseinua eta soluzioen ingeniarietza), baina baita eskulan aldetik intentsiboak direnak ere (logistika alderantzikatua, baliabideak birjartzeko lanak, osagaien garbiketza).

EKONOMIA ZIRKULARREKO LANKIDETZARAKO AUKERAK SUSTATZEA

Ekonomia zirkularra aukerak sortuko dituen paradigma-aldaketa gisa ulertu behar da, hala enpresen nola kontsumitzaileen eta gainerako eragileen ikuspegitik (administrazio publikoa; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea; ikastetxeak...). Ildo horretan, ideia nagusia da eragile guztien artean interakzio egokiak sortzea, lankidetzaren bidez ekonomia zirkularrak dakartzan aukera ekonomikoak eta sozialak azaleratzeko.

JARDUNBIDE EGOKIAK LURRALDE OSORA ZABALTZEA

Ekonomia zirkularrak egiturazko aldaketak dakartza, eta gizarte guztiari aplikatu behar zaizkio. Ildo horretan, estrategiaren asmoa da eskualde osora zabaltzea bertan egiten diren ekonomia zirkularreko jardunbide egokiak, ahalik eta inpaktu handiena izateko eta aukerak ahalik eta eragile gehienek aprobetxatzeko.

KOMUNITATE ZIRKULARRA ERAIKITZEA

Ekonomia zirkularren jardunbideak lurralde osora zabaltzeko modu eraginkor bat da komunitatea indartzea, komunitatea lankidetzako sistema sozial eta ekonomiko gisa ulertuta. Bertan, eragile guztiek eskubide osoko kide gisa aitortzen dute elkar, eta lankidetzaren eta elkarlanaren balioei esker, praktikak, estrategiak, metodologiak eta ezagutza parteka ditzakete.



06/2 NEXT GENERATION funtsak

Lehenengo deialdiak

Bidasoa Biziriken laguntza teknikoarekin eta kanpoko kontsulta-entresa baten laguntzarekin, programa berrien jarraipena egin da Irun eta Hondarribiko lehentasunezko proiektuentzat finantzaketarako aukera berriak detektatzeko, 2020 urtean zehar aurreko fase batean bildutakoak.


NEXT GENERATION funtsak, Europako Kontseiluak 2020ko uztailaren 21ean onartutako aldi baterako berreskurapenetako aparteko tresna dira. Akordio hori, "Next Generation EU" (EBren hurrengo belaunaldia) izenez ezagutzen da, eta 750.000 milioi euroko zenbatekoa du,

COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko Europako estatu kideekin koordinatutako erantzuna bermatzeko.

Funtsak artikulatzen dira Berrekuratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (PRTR) bidez. Plan horrek, Ministerio desberdinek kudeatutako 10 oinarritzko politika eta 30 osagai sektorial ditu.

Aurten lehenengo kontsultak eta deialdiak egin dira ondorengo alorretan:

Periodo 2021-26
69.528
millones de euros



Iturria: <https://planderecuperacion.gob.es/>



Irungo Udaleko zerbitzu teknikoekin lankidetzan, Bidasoa Bizirik 2021eko lehen erdialdean 6 Intereseko Adierazpenei (MDI) erantzun die, hau da, Ministerioek egindako kontsulta irekiei, proiektuak sustatzen dituzten enpresek eta gizarte-eragileek izan ditzaketen jarduera-esparruak biltzeko eta informazio zehatz eta zuzenetik abiatzen diren eta proiektu helduei eta 2024/2026rako emaitzak lortzeko berme handiagoa duten politikak eta programak diseinatzeko.

Aipatu 6 MDI horiek gai hauetan oinarritzen dira:

1. Garraioa eta Mugikortasuna. Emisio baxuko zonaldeak eta digitalizazioa. Energia berriztagarriak. Hiri-garraioaren eraldaketa digitala eta jasangarria.
2. Etxebizitza eta Agenda urbanoa. Etxebizitzaren birgaitzea eta berroneratze urbanoa. (Iñigo de Loyola).
3. Eraikin publikoen birgaitzea (PIREP) (Aduana eraikina).
4. Eraikin publikoen birgaitzea (PIREP) (Emigrazio eraikina).
5. Enpresa txiki eta ertainen digitalizazioa.
6. Administrazioaren digitalizazioa eta modernizazioa.

Bigarren fase batean eta 2022 eta 2024 bitartean egin beharreko proiektuen lehenengo deialdiak kontuan hartuz, Agentziak koordinatu du Udalak 4 proiektu hauen inguruan egin behar zuen prestaketa eta aurkezpena:

- C14.11 Iraunkortasun turistikorako planak Helburuetan. Oiasso Erromatar Museoan termak Oiasso Erromatar Museoaren erreserba-sistema eta online denda digitalizatzea. Irugurutzeta ingurua birgaitzeko ikerketa Helburu turistiko inteligentea izena lortzeko ekintzak. (2021 amaieran onartua).
- C1.11 Emisio baxuen zonaldea ezartzea eta hiri garraioaren eraldaketa digitala eta jasangarria. Hiriko garraio publikoaren elektrifikazioa autobus elektrikoak eta kargatzeko puntuak erosiz, eta emisio baxuko guneak ezartzea, eremu urbanoak oinezko bihurtuz eta berrurbanizatuz.
- C14.14 Merkatuei, hirigune komertzialei, merkataritza ez-sedentarioari eta merkaturatzeko bide laburrei laguntzea.
- C11.13 Toki Erakundeetako administrazioen eraldaketa digitala eta modernizazioa.

Bidasoa Bizirik laguntza teknikoa ematen jarraituko du, onartutako proiektuak abian jarri eta gauzatzeko eta eskualdearentzat interesgarriak diren deialdi berrien jarraipena egiteko.



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



2021 Bidasoa bizirik kopurutan

EKINTZAILETZA

518

Pertsonei harreta

85

Egindako Bideragarritasun Planak

414

Ekintzailletza prozesuetan prestatutako pertsonak

350

Ekintzailletza-ekintzetan parte hartu duten LHko ikastetxeetako pertsonak

ENPRESA

181

Lehiakortasuna hobetzeko eta eraldaketa digitalerako programetako enpresak

281

Informazio- eta kontsulta-zerbitzuan artatutako enpresak

TREBAKUNTZA PROFESIONALA ETA ENPLEGUA

1.210

(3.577 zerbitzu)

Etorkizuna duten lanbideetan "El Espazio"-n artatutako pertsonak

904

Orientazioan, lana bilatzen eta diseinu profesionalean dauden pertsonak

150

Lan eskaintza

192

Kudeatutako lan eskaintzak enpleguko 2 asteetan

FORMAKUNTZA

204

Aurrez aurreko prestakuntzan dauden pertsonak

33

Ekintza prestatzaileak (21 presentzialak + 12 online tutorizatuta)

TURISMOA

63.435

bisitari bulegoetan

1.383

Kontsulta ez presentzialak

29.475

Interneteko kontsultak



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik



2021eko Urtekari Sozioekonomikoa

Behe bidasoa eskualdeak guztira 79.761 biztanle zituen 2021ean, eta horrenbestez, km²–ko 1.114 biztanleko dentsitatera iritsi da dagoeneko.

LANBIDEk eskainitako datuen arabera, 37.350 lagunek osatzen dute Bidasoa eskualdeko biztanleria aktiboa, 2021an. LANBIDEn izena emaniko langabetuen kopuruari dagokionean, abenduaren 31an 4.027 langabetu dira guztira, eta horrek esan nahi du %10,9 ingurukoa dela langabezia tasa biztanleria aktiboaren gainetik. Era berean formalizaturiko kontratuak 21.424 dira guztira. Aipatzekoa da, Gipuzkoan guztira eginiko kontratuei dagokionean %8,3koa dela eskualdeko kontratuen partaidetza, aurreko urtekoa baino baxuagoa izanik ehuneko hori.

Gizarte segurantzarako afiliazioak 24.616 pertsona dira, 19.543 Irungo udalerrian eta 5.073 Hondarribiko udalerrian.

Eskualdeko hezkuntza zentroetako ikasleak 12.175 ziren. Matrikulazioen %64,5 ikastetxe publikoetan egin da eta gainerako %35,5 zentro pribatuetan. Bidasoako kanpusean (Mondragon Unibertsitatea) 316 ikasle ari dira guztira, bai eskualdekoak bai beste udalerrri batzuetakoak.

Eskualdeko enpresa ehuna, berriz, 6.343 establezimenduk osatzen dute 2021ean; horietan 26.384 langile ari dira, eta horietatik %77a hirugarren sektorean ari da lanean.

Lehen sektoreari dagokionean, aipatzekoa da, Hondarribiko ontzidiak aurrera eramano arrantza jarduera bikaina, 25 ontzi eta 284 marinelekin, kontuan izanik soilik baxurako azpisektorean jarduten dutela. Kanpainan 4.674 tona arrain atzeman zituzten.

Eskualdeko industri sektorea 377 establezimenduk osatua dago eta 3.964 lagun ari dira horietan lanean. 3.816 Irunen eta 148 Hondarribian.

Eraikuntzari dagokionean, eskualdean 917 establezimendu daude eta 1.578 langile ari dira horretan lanean.

Eskualdeko hirugarren sektorea (zerbitzuak) 4.946 establezimenduk osatzen dute guztira, eta 20.357 lagun ari dira horretan lanean.

Sektore horren barnean aipatzekoak dira:

Merkataritza

Txikizkako merkataritza establezimenduak 930 ziren guztira, horietatik %84 Irunen daude. Eskualdeko merkataritza dentsitatea 11,66 establezimendu da 1.000 biztanleko.

Turismoa

2021. urtean 44 ostatu establezimendu zeuden eskualdean. Establezimendu horiek 2.449 plaza eskaintzen dituzte guztira. Urte berean zehar, 1,7 egun izan dira bisitariek batez beste eman dituzten gauak.

Eskualdeko hotel okupazioak %56,07ko okupazioa izan zuen urtean batez beste.

Garraioa eta Logistika

Eskualdean 314 dira errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak, horietatik %67ak ibilgailu astunak erabiltzen ditu eta gainerako %33ak ibilgailu arinak.


08

Demografia eta gizartea

08/1. Demografia

Behe Bidasoko biztanleria, biztanleriaren %-ekoa

2021



Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala


	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Nº hab.	%	Nº hab.	%	Nº hab.	%
SEXUA						
· Gizonak	30.757	49	8.449	49,7	39.206	49,2
· Emakumeak	31.995	51	8.560	50,3	40.555	50,8
Guztira	62.752	100	17.009	100	79.761	100
ADINA						
· 0-14	8.073	12,9	2.159	12,7	10.232	12,8
· 15-29	9.314	14,8	2.638	15,5	11.952	15,0
· 30-44	11.698	18,6	2.774	16,3	14.472	18,1
· 45-59	15.267	24,3	4.190	24,6	19.457	24,4
· 60-74	11.221	17,9	3.250	19,1	14.471	18,1
· 75-89	6.231	9,9	1.787	10,5	8.018	10,1
· 90 y más	948	1,5	211	1,2	1.159	1,5
Guztira	62.752	100	17.009	100	79.761	100

Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala



Biztanleriaren bilakaera (2011 urtea: basea 100)

2011-2021



Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala, INE eta Eustat

Azalera eta biztanleriaren dentsitatea Behe Bidasoan

2021

	Azalera (km ²)	Biztanleria	Dentsitatea (bizt./km ²)
Beheo Bidasoa	71,6	79.761	1.114,0
Irun	42,8	62.752	1.466,2
Hondarribia	28,8	17.009	590,6
Gipuzkoa	1.980,3	726.033	366,6

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

08/2. Formakuntza

Matrikulazioak unibertsitatez kanpoko prestakuntza arautuko zentroetan

21/22 ikasturtea

	IRUN			HONDARRIBIA			BEHE BIDASOA		
	Públ.	Prib.	Guzt.	Públ.	Prib.	Guzt.	Públ.	Prib.	Guzt.
Haur/lehen/bigarren hezkuntza (1)	4.669	2.702	7.371	1.239	888	2.127	5.908	3.590	9.498
BATXILERGOA	638	302	940	126	114	240	764	416	1.180
E.M.H.Z. (2)	469	106	575	-	-	-	469	106	575
G.M.H.Z. (3)	714	121	835	-	-	-	714	121	835
Beste batzuk	--	87	87	-	-	-	0	87	87
Guztira	6.490	3.318	9.808	1.365	1.002	2.367	7.855	4.320	12.175

(1) Haurtzaindegiak eta 2 urtekoen gelak barne daude; (2) Erdi mailako prestakuntza zikloak; (3) Goi mailako prestakuntza zikloak.

Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala,



Behe Bidasoako ikasleen matrikulazioak unibertsitateetan

21/22 ikasturtea

matrikulaturiko ikasle kop.

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)	1.045
Gipuzkoako Kanpusa	733
Bizkaiaiko Kanpusa	171
Arabako Kanpusa	141
Deustuko Unibertsitatea (Donostiako Kanpusa)	164
Nafarroako Unibertsitatea (TECNUM, Donostiako Kanpusa)	49
Mondragon Unibertsitatea	95

Iturria: UPV/EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Deustoko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako Kanpusa

21/22 ikasturtea

matrikulaturiko ikasle kop.

Gradua Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan	190
Ekintzailletza eta Berrikuntza Lidergo gradua	126
Guztira	316

Iturria: Mondragon Unibertsitatea



09

Lan merkatua

09/1. Enplegua

Biztanleria aktiboa Behe Bidasoan

2021

Irun	29.201
Hondarribia	8.149
Behe Bidasoa	37.350
Gipuzkoa	353.161
EAE	1.077.147

Iturria: Lanbide

09/2. Kontratazioa

Behe Bidasoko eta Gipuzkoan formalizatutako kontratuak

	2017	2018	2019	2020	2021
Behe Bidasoa	25.835	27.498	26.655	19.167	21.424
Gipuzkoa	280.696	291.885	293.781	207.769	258.260
% Eskualde/Gipuzkoa	9,2	9,4	9,1	9,2	8,3

Iturria: Lanbide

**Behe Bidasoan kontrataturiko pertsonen profila****2021**

Sexua	Gizona (51%)
Adina	25 urtetik 44 urtera (51%)
Kontratuaren iraupena	Zehaztutako iraupena (87%)
Kontratuaren lege sailkapena	Behin-behineko zirkunstantziala (60%)
Ekonomi sektorea	Zerbitzuak (86%)

Iturria: Lanbide

09/3. Gizarte segurantzarako afiliazioak**Afiliazioak Behe Bidasoan, motaren arabera**

	2017	2018	2019	2020	2021
Erregimen orokorra	16.506	16.841	17.424	16.863	17.608
Autonomoak	6.162	6.148	6.007	6.021	5.985
Erregimena (Nekazaritzakoa, Itsasoa eta Etxeko enpleg.)	1.049	1.018	1.017	1.020	1.023
Guztira	23.717	24.007	24.448	23.904	24.616

Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

09/4. Langabezia**Lanbiden erregistratuak eta langabezian dauden pertsonak**


	2017	2018	2019	2020	2021
Behe Bidasoa	4.275	4.029	3.981	4.374	4.027
Irun	3.622	3.431	3.391	3.744	3.433
Hondarribia	653	598	590	630	594

Iturria: Lanbide



Langabezia tasa Behe Bidasoa, Gipuzkoa eta EAEn

2011-2021



Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala, INE eta Eustat

Langabezia tasa

2021

EAE	10,7%
Gipuzkoa	8,7%
Behe Bidasoa	10,9%
Irun	11,8%
Hondarribia	7,4%

Iturria: Lanbide, 2020ko biztanleria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta

Langabezian dauden pertsonen profila Behe Bidasoan

2021

Sexua	Emakumezkoa (58%)
Adina	44 urte baino gehiago (53%)
Ikasketa maila	Bigarren hezkuntza (46%)
Jarduera sektorea	Zerbitzuak (72%)
Multzo profesionala	Zaharberritze-zerbitzuko langileak, saltzaileak, etab. (31%)

Iturria: Lanbide



10

Enpresa ehuna

10/1. Establezimenduak eta enplegua 2021

Establezimenduak jarduera motaren arabera: 6.343

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza: 1,6% Industria: 5,9% Eraikuntza: 14,5% Zerbitzuak: 78%

Enplegua jarduera motaren arabera: 26.384

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza: 1,8% Industria: 15% Eraikuntza: 6% Zerbitzuak: 77,2%

Iturria: Eustat

10/2. B.P.G.

Barne-produktu gordina BPG, per capita, (prezio arruntak €)

2019*

	per capita BPG (€)	Indizea (EAE=100)
Irun	31.569	87
Hondarribia	29.796	82
Behe Bidasoa	31.178	86
Gipuzkoa	37.188	103
EAE	36.254	100

Iturria: Eustat
*azkeneko datua

11

Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza

11/1. Nekazaritza

Usategiak Behe Bidasoan: kopurua eta tamaina


2021

Usategi kopurua	580
Batez besteko tamaina (Hak)	1,81

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Azalera osoa Behe Bidasoan, motaren arabera

2021



Iturria: gipuzkoako foru aldundia



11/2. Abeltzaintza

Abelburuak Behe Bidasoan: kopurua eta mota

2021

Abelburuak, kopurua	5.020
Abelburuak, abereen arabera	Ardiak (56%), behiak (30%)

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

11/3. Arrantza

Arrantza jarduera

2021

Ontziak

Artisau erara	9
Azalera	16
Guztira	25

Tripulatazaileak

Artisau erara	41
Azalera	243
Guztira	284

Atzemandakoak

Bolumena (kilotan)	4.674.474,7
Arrain motak (%)	hegaluzea (54%), antxoa (6%), berdela (26%), sardina (8%)

Iturria: Hondarribiko San Pedroko Marinelen Kofradia

12 Industria


Industri establezimenduak eta enplegua, jarduera motaren arabera

2021


	IRUN		HONDARRIBIA		BEHE BIDASOA	
	Establez.	Enplegua	Establez.	Enplegua	Establez.	Enplegua
· Elikagaiak, edariak eta tabakoa	34	546	8	58	42	604
· Ehungintza, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	21	96	5	6	26	102
· Egurra eta artelazkia	11	41	1	1	12	42
· Papera	3	26	-	-	3	26
· Arte grafikoak eta euskarri grabatuen kopia	22	55	4	5	26	60
· Industria kimikoa	3	31	-	-	3	31
· Kautxua eta plastikoak	21	457	2	2	23	459
· Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuk	4	30	1	1	5	31
· Burdin produktuak, altzairua...	1	2	-	-	1	2
· Produktu mineralak, makineria eta ekipamendua izan ezik	82	1.125	1	1	83	1.126
· Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak	15	246	-	-	15	246
· Material eta ekipamendu elektrikoa	4	58	-	-	4	58
· Beste ataletan ez dagoen makineria eta ekipamendua	17	210	2	4	19	214
· Motordun ibilgailuak, atoiak eta erdiatoiak	4	254	-	-	4	254
· Garraio-materiala	2	*	1	*	3	328
· Altzariak eta manufakturako beste industria batzuk	33	102	2	3	35	105
· Makineria eta ekipamenduaren konponketa eta instalazioa	23	85	31	46	54	131
· Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotuaren hornidura	2	*	2	*	4	10
· Ura hartu, araztu eta banatzea	3	70	1	15	4	85
· Ur zikinak biltzea eta tratatzea	9	48	2	2	11	50
Industria Guztira	314	3.816	63	148	377	3.964

Iturria: Eustat

Establezimenduak



Enplegua



- Elikagaiak, edariak eta tabakoa
- Papera eta arte grafikoak
- Kautxua eta plastikoak
- Metalurgia eta prod. Metalikoak
- Material eta ekipamendu elektrikoa
- Manufakturako beste industria batzuk
- Beste batzuk

Iturria: Eustat



13


Eraikuntza

Establezimenduak eta enplegua eraikuntza sektorean

2021

	IRUN		HONDARRIBIA		BEHE BIDASOA	
	Establez.	Enplegua	Establez.	Enplegua	Establez.	Enplegua
Eraikuntza Guztira	784	1.371	133	207	917	1.578

Fuente: Eustat



Iturria: Eustat

14

Merkataritza

Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan, jarduera motaren arabera


2021

	IRUN	HONDARRIBIA	BEHE BIDASOA
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	300	62	362
Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak	151	30	181
Farmazia, drogeria, lurrin-dendak	39	7	46
Etxeko ekipamendua	59	9	68
Liburuak, egunkariak, paper-dendak	27	5	32
Txikizkako beste dendak	156	27	183
Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo*	49	9	58
Txikizkako Merkataritza Guztira	781	149	930

Iturria: Eustat

*vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta

Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoana



Iturria: Eustat

Merkataritza dentsitatea, jarduera mota nagusien arabera, (establez. 1.000 bizt.)

2021

	IRUN	HONDARRIBIA	BEHE BIDASOA
Elikagaiak	4,78	3,65	4,54
Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak	2,41	1,76	2,27
Farmazia, droguería, lurrin-dendak	0,62	0,41	0,58
Etxeko ekipamendua	0,94	0,53	0,85
Liburuak, egunkariak eta papertegia	0,43	0,29	0,40
Txikizkako beste dendak	2,49	1,59	2,29
Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo*	0,78	0,53	0,73
Guztira	12,45	8,76	11,66

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

*vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta

15 Turismoa

Behe Bidasoan eskaintzen diren establezimenduak eta ostatu plazak


2021

	IRUN		HONDARRIBIA		BEHE BIDASOA	
	Establez.	Leku kop	Establez.	Leku kop	Establez.	Leku kop
• Hotelak	6	622	10	406	16	1.028
• Pentsioak	8	192	1	8	9	200
• Nekazal etxeak	1	12	6	63	7	75
• Landa etxeak	1	24	4	68	6	92
• Apartamentuak	1	2	2	50	2	52
• Kanpinak	-	-	2	790	2	790
• Aterpetxeak	1	60	1	152	2	212
Ostatu guztira	18	912	26	1.537	44	2.449

Iturria: Bidasoa Turismo

Behe Bidasoan eskaintzen diren ostatu-plazak

2021



Iturria Bidasoa Turismo



Batez besteko okupazioa eta gualdia Behe Bidasoko hoteletan

2021

batezbestekoa / maximoa

Okupazio maila hoteletan %

56,07% / 96,15% (abuztua)

Emandako gauak (egun kop.)

1,7 egun

Iturria: Bidasoa Turismo

Ostalaritza establezimenduak Behe Bidasoan

2021

	IRUN		HONDARRIBIA		BEHE BIDASOA	
	Nº	%	Nº	%	Nº	%
· Tabernak	137	44,8	23	23,5	160	39,6
· Jatetxeak	158	51,6	73	74,5	231	57,2
· Beste batzuk	11	3,6	2	2,0	13	3,2
Ostalaritza Guztira	306	100,0	98	100,0	404	100,0

Iturria: Eustat



16

Garraioa eta azpiegiturak

Garraioa Behe Bidasoan

2021

Hiriko eta hiri arteko autobusak	Bidaiari kop.
Irun – Irun	1.424.028
Hondarribia – Donostia (N1)	673.162
Hondarribia – Donostia (AP8)	197.374
Hondarribia – Donostia (EHU)	108.009
Hondarribia – hospital – Txingudi MG	78.041
Irun – Donostia (N1)	561.333
Irun – Donostia (EHU)	15.201
Hondarribia – Irun	814.428
Hondarribia – Anoeta	1.376
Hondarribia – Donostia (gauekoa)	13.117
Hondarribia – Irun (gauekoa)	2.439
EuskoTren	
Irun	1.976.392
Donostia-Hendaia	6.433.884
ADIF	
Eskualde artekoak	8.114
Linea handiak	20.111
Aldirikoak	459.522
Itsas Linea	
Hondarribia-Hendaia*	204.000
Donostia-Hondarribiko aireportua	
Bidaiariak	155.331
Operazioak	3.119

Iturria: AUIF, Ekialdebus, EuskoTren, Renfe, Jolaski* (azken datua), Aena



Errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak

2021

	IRUN		HONDARRIBIA		BEHE BIDASOA	
	Enpresak	Kamioak	Enpresak	Kamioak	Enpresak	Kamioak
Ibilgailu arinak	93	136	11	16	104	152
Ibilgailu astunak	189	1.223	21	42	210	1.265
Guztira	282	1.359	32	58	314	1.417

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Errepideetako trafikoa

Ibilgailuen eguneroko batez besteko zirkulazioa Behe Bidasoko errepideetan barrena

2021

Irungo ordainlekua (A8)	Nº de vehículos
Donostiara bidean	18.464
Frantziara bidean	17.940
Guztira bi norabideetan	36.404
Beste errepide batzuk*	
N-1	31.995
N-638 (Irun-Hondarribia)	21.466
N-121-A	12.218

Iturria: Bidelan, Gipuzkoako Foru Aldundia
*2020ko azkeneko datuak



17

Zerbitzuak

Zerbitzuen establezimenduak, jarduera motaren arabera

2021

	IRUN	HONDARRIBIA	BEHE BIDASOA
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	2.040	426	2.466
Informazioa eta komunikazioak	90	24	114
Finantza jarduerak eta aseguruak	105	28	133
Higiezin jarduerak	110	30	140
Jarduera profesionalak eta laguntzaileak	693	207	900
Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna	481	150	631
Jarduera artistikoak eta beste zerbitzuak	462	100	562
Zerbitzuak Guztira	3.981	965	4.946

Iturria: Eustat



18

Ekipamenduak

2021

Kirol ekipamenduak

Artaleku eta Azken Portu polikiroldegia, bazkide kopurua	8.618
Hondartza polikiroldegia, bazkide kopurua*	4.277
Hondarribiko Kirol Portua, eskalen kopurua	355
Hendaiako Kirol Portua, eskalen kopurua	875

Kultur eta aisialdi ekipamenduak

OIASSO Erromatar Museoa, bisitari kopurua	18.876
Plaiandiko Parke Ekologikoa, bisitari kopurua (azkeneko datua)	12.693

Liburutegiak

Carlos Blanco Aguinaga CBA Kultur Gunea	
• Bisitari kopurua	91.382
• Bazkide kopurua	32.662
Zuloaga Etxea	
• Bisitari kopurua	45.273
• Bazkide kopurua	10.064

Amaia Kultur Zentroa

• Erabiltzaileak	20.097
• Jarduerak	385

Irungo Udal Musika Eskola eta Kontserbatorioa

• Kontserbatorioa, ikasleak	90
• Musika eskola, ikasleak	500

Ficoba, Erakustazoka

• Azokak/Erak.	10
• Bilerak	224
• Bisitariak	83.760



Esker onak

Aena – Donostia-Hondarribiko Aireportua

Auif

Deusto Unibertsitatea

Egailan

Ekialdebus

Euskotren

Eustat – Euskal Estatistika Erakundea

Ficoba, Gipuzkoako Erakustazoka

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Hondarribiko San Pedroko Marinelen Kofradia

Hondarribiko Udala

Ine

Irungo Udala

Jolaski

Lanbide

Mondragon Unibertsitatea

Nafarroako Unibertsitatea

Renfe

Upv/Ehu



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

www.bidasoa-activa.com